



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

GIZARTE LANGINTZAKO UNIBERTSITATE ESKOLA  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE TRABAJO SOCIAL

*Gizarte Langintza Gradua*

GRADU AMAIERAKO LANA

**ADINEKOENTZAKO BIZITOKI-BALIABIDEAK AZTERGAI: OHIKO  
ETXE BIZITZA KOMUNITARIO ETA COHOUSING-A BEZALAKO EREDU  
BERRITZAILEAGOEN ARTEAN**

**Donostiako Matia Fundazioko Lamourous egoitzako kasua**

Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea

2021-2022 Ikasturtea.

**Egilea:** Ane Arteche Ortigosa

**Zuzendaria:** Maddalen Epelde Juaristi

2022ko uztaileko deialdia

*“¿Entonces, para qué sirve la utopía?*

*Para eso, sirve para caminar.”*

*-Eduardo Galeano*

*Maddaleni,*

*Utopiarantz gidatu eta bidean eskua emanagatik.*

*Aitona eta amonari,*

*ahalegin guztien eragile izan zarete.*

*Amari,*

*maitasunak zure izena duelako.*

# AURKIBIDEA

<b>1. SARRERA</b>	<b>3</b>
<b>2. HIPOTESI ETA HELBURUAK</b>	<b>5</b>
<b>3. MARKO TEORIKOA</b>	<b>7</b>
3.1 ZAHARTZAROAREN BILAKAERA EUSKADIN	7
3.2 HIRUGARREN ADINAREKIKO GIZARTE IKUSKERA	10
3.3 BIZITEGI-BALIABIDEAK: APARTAMENTU BABESTUAK ETA ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK	13
3.4 BIZITEGI-BALIABIDE BERRITZAILEAGOAK: <i>COHOUSING</i> ESPERIENTZIAK AZTERTUZ	18
3.4.1 SUECIA	21
3.4.2 DANIMARKA	22
3.4.3 ESPAINIA	22
3.4.4 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA	23
3.5 PERTSONAN OINARRITUTAKO ARRETA EREDUA: ADINEKO PERTSONAK PROTAGONISTA BIHURTUZ	29
<b>4. METODOLOGIA</b>	<b>35</b>
<b>5. ANALISIA</b>	<b>39</b>
5.1. OHIKO ETXEBIZITZA KOMUNITARIOAK: BERRIKUNTZAK BEHAR DITUZTE, BAINA GUTXIETSIK ERE BADIRA	39
5.2 ETXEBIZITZA MODALITATE BERRIAK: URRUNEKO AGERTOKI IDEALA	49
5.3 PERTSONAN ERDIRATUTAKO EREDUA: BETI ERDIGUNEAN MANTENDUZ	56
<b>6. ONDORIOAK</b>	<b>60</b>
<b>7. BIBLIOGRAFIA</b>	<b>65</b>
<b>8. ERANSKINAK</b>	<b>69</b>
ERANSKINA 1	69
ERANSKINA 2	74
ERANSKINA 3	80
ERANSKINA 4	86
ERANSKINA 5	91
ERANSKINA 6	92
ERANSKINA 7	93
ERANSKINA 8	94

## 1. SARRERA

Ikerketa honen bitartez, adineko pertsoneri zuzendutako etxebizitza baliabideen errealitateak ezagutarazi dira, lan honen oinarria etxebizitza komunitario eta *Cohousing* edo apartamentu babestuen arteko alderaketa egitea izan delarik.

Alde batetik, gai honen aukeraketa arrazoi pertsonalengatik oso baldintzatuta dago, izan ere, betidanik hirugarren adinaren inguruko gerturatze eta lantze nahi bat eduki izan dut, nire aitona-amonen zahartze prozesuan zaintza lanetan izandako inplikazioagatik. Garai horretan, lehenengo pertsonan etxebizitza komunitarioak barrutik zer ziren ezagutu eta hauen funtzionamenduaren berri jakiteko aukera izan nuen. Beraz, esan daiteke txikitatik argi izan dudala esparru honetan jardun nahi nuela.

Nahi pertsonal horrek bultzatuta, nire Gizarte Langintza Graduak praktikaldia ere halako baliabide batean egin nuen, Matia Fundazioko Lamorous egoitzan, praktikaldia amaitu baino lehen lanerako kontratatu ninduten eta beraz gaur egun oraindik bertako Eguneko Zentroan lanean jarraitzen dut. Horrenbestez, jarraian aurkeztuko den GRALA adinekoei zuzendutako etxebizitza baliabideei buruz egiteko ideia oso erakargarria suertatzen zitzaidan, egunerokoan halako baliabide batean murgilduta egoteak ematen zidan ezagutzatik abiatuz eta hori zabaldu eta sakontzeko asmoz.

Bestetik, eta arrazoi objektiboetan erdiratuz, esan daiteke zahartzaroaren inguruan gehiago hausnartzeko beharra dagoela prozesu honetan benetako bizi-kalitatea lortu nahiez gero. Izan ere, geroz eta gehiago bizi garenez, are eta gehiago pentsatu beharko genuke adinekoei zuzendutako baliabideen inguruan. Beraz, azken urteetako aurrerapen medikuak direla eta gizateria gero eta luzeago bizi garen une hauetan, berebiziko garrantzia du hirugarren (eta laugarren) adinera iristen diren pertsonen ongizatea ahal bezain beste bermatzea horien bizitzaren amaierara arte.

Hori dela eta, lan honek bizitzako azken etapa hori igarotzeko existitzen diren baliabide erresidentzial desberdinen azterketa du helburu. Baliabide erresidentzial horiek askotarikoak izan daitezke, baina funtsean etxebizitza komunitarioak (ohiko adineko pertsonen erresidentziak), apartamentu babestuak eta *Cohousing* erakoak (azken bi hauek eredu berritzaileagoak) izango ditu oinarri. Eta lanak abiapuntu duen hipotesia izango litzateke eredu berritzaile horiek pertsonen erdiratutako eredu bermatzeko gaitasun gehiago daukatela, pertsonen ongizatea gehiago garatuz, beraz, eta

horrenbestez ohiko baliabide tradizioaletatik berriagoetara salto bat ematea beharrezkoa edo gutxienez interesgarria izan daitekeela.

Lanaren hipotesi eta helburuak ondo zehaztu ostean, marko teorikoa garatu da hirugarren adinaren inguruko kontzeptu nagusiak landuz, esate baterako *edadismoaren* edota bizitza kalitatearen esanahiak definitu dira. Honen ostean, metodologia zehaztu da, hots, kualitatiboa izan dena eta erabilitako teknika nagusia elkarrizketa sakonarena. Nahiz eta egunerokoan murgilduta nagoen errealitate bat izanik Ekintza Parte-Hartzailearen (IEPH) markoan kokatu ahalko litzatekeen, horrek behaketarako, entzuteko eta partekatzeko ematen duen aukera paregabea kontutan izanik.

Ondoren, elkarrizketen bidez jasotako informazioaren analisi sakona burutu da, betiere hipotesi eta helburuak kontuan izanik horretarako eskuratu dugun informazioa era antolatu batean sailkatu eta modu ordenatuan adieraziz. Azkenik, ondorioen atalean eztabaida bat burutu da lan honek planteatutako hipotesi eta helburuen inguruko aspektuak iruzkindu zein hausnarketa nagusiak biltzeko helburuarekin.

## 2. HIPOTESI ETA HELBURUAK

Jarraian, lan honek abiapuntu izango dituen hipotesiak jorratuko dira, ostean helburuak finkatzeko asmoz:

1. Apartamentu babestuetan pertsonaren autonomia eta beharrak hobeto errespetatzen dira etxebizitza komunitarioetan baino.

Apartamentu babestuetan pertsonari bere etxe propioan egoteko aukera esleitzen zaio, bere sukaldea, egongela, logela eta komuna, dena bertan daukalarik. Horrek pertsonaren autonomia guztiz garatzeko aukera ematen du, aldi berean adineko pertsonak izan ditzaketen osasunari loturiko beharrianak asetzeko zerbitzuak gertu dituztelarik. Etxebizitza komunitarioetan errealitatea bestelakoa da ordea, hainbatetan logela propioa ere ez baitu pertsonak eta beste egoiliar batekin partekatu behar izaten du sarri. Horrek, bere intimitate eta autonomia zuzenean apurtzen ditu. Horregatik uste da, pertsonan erdiratutako eredia hobeto bete daitekeela apartamentu babestuetan. Nahiz eta, kontziente izan dependentzia maila gora doan heinean zaila suertatu daitekeela pertsona apartamentu propioan mantentzea.

2. Etxebizitza komunitarioetan dauden adineko pertsonetikiko sortzen den gizarte irudia ezkorra dela eta *edadismoari* loturiko aurreiritziak erreproduzitzen direla uste da; apartamentu babestuetan errealitatea bestelakoa litzateke, horietan dauden adineko pertsonari buruzko gizarte irudia baikorra dela uste da, aktiboki bizi den adineko pertsonarena.

Edadismoak, hau da, adineko pertsonari buruz gizarteak dituen estereotipo eta aurreiritzi ezkorrek, zuzenki kaltetzen dute hirugarren adinekoei buruz dugun irudia, bertako adineko pertsonen balioa gutxiestera iritsiz. Aurreiritzi hauetatik abiatuta etxebizitza komunitarioetan pentsatzen dugunean, espektatiba eta aurre-epaiketak ere antzekoak izan ohi dira, zahartzaro prozesua pasiboki bizitzen dutela uste baita, euren autonomia zein beharrei lotutako inongo erabakirik hartu gabe. Honek, edadismoari dagozkion aurreiritziak baieztatzen dituela uste da. Apartamentu babestuen inguruan pentsatzean aldiz, zahartzaro prozesu aktibo bat datorkigu burura, non gu geu garen gure bizitzan erabakien jabe eta ondorioz, edadismoari loturiko hainbat aurreiritzi ezeztatzen ditugu ikuskera honen bidez.

Aurreko hipotesiak oinarri hartuta, lan hau norabidetzeko ezartzen diren helburuak honakoak dira:

1. Etxebizitza komunitarioetako eta apartamentu babestuetako errealitateak ikertu eta alderatzea.

Baliabide bakoitzean pertsonan erdiratutako eredia nola aplikatzen den aztertzea interesatzen da bereziki, horrela ikusi ahal izango delako ea benetan bien artean alderik badagoen pertsonak artatzerako orduan, eta ea benetan apartamentu babestuetan pertsonaren autonomia gehiago errespetatzen ote den etxebizitza komunitarioetan baino.

2. Adinekoiei eta etxebizitza komunitarioetako bizimoduari buruzko aurreiritziak galdetu eta bat egiten duten ikertzea.

Gure gizartean apartamentu babestuen baliabideak murriztagoak izanik eta etxebizitza komunitarioetara sarbidea errazagoa denez (bestea beste Gradu Amaierako Lan honen egileak bere praktikaldia halako baliabide batean burutu eta gaur egun bertan lanean jarraitzen duela aprobetxatuz), bertako egoiliar, horien senide zein profesionali adineko pertsona eta etxebizitza komunitarioetako bizimoduaren inguruko aurreiritzien baitan galdetzea da helburua, *edadismoari* dagozkion horiekin bat egiten duten ikusteko.

### 1. Taula: GRALaren hipotesi eta helburuak

HIPOTESIAK	HELBURUAK
Adinekoentzako apartamentu babestuetan pertsonan erdiratutako eredia neurri handiagoan aplikatzen dela uste da etxebizitza komunitarioetan baino.	Adinekoentzako etxebizitza komunitario eta apartamentu babestuetako errealitateak ikertu eta alderatzea (oinarrian pertsonan erdiratutako eredia izanda).
Etxebizitza komunitarioetan dauden adineko pertsonetikiko sortzen den gizarte irudia ezkorra dela eta <i>edadismoari</i> loturiko aurreiritziak erreproduzitzen direla uste da.	Adinekoiei eta etxebizitza komunitarioetako bizimoduari buruzko aurreiritziak ikertu eta bateragarriak diren frogatzea.

*Iturria:* Norberak egina.

### 3. MARKO TEORIKOA

#### 3.1 Zahartzaroaren bilakaera Euskadin

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera (2002), 60 eta 74 urte bitarteko pertsonak adin nagusikotzat hartzen dira; 75-90 urte bitarteko adineko pertsonak, eta 90 urtetik gorako pertsonak, berriz, “zahar handitzat”. Hau da, 60 urtetik gorako gizabanako orori deituko zaio “adinekoa”.

Begi-bistakoa da urteak pasa ahala, bizi-baldintzen hobetzeak, medikuntzaren aurrerapenak, elikatura ohitura osasungarriagoek, bizitza-eredu desberdinek... gizarte biztanleriaren zaharkitzera eraman gaituela. Honez gain, krisialdi ekonomikoren testuinguruak zein emakumeek lan munduan hartutako paperak jaiotza tasak gutxitzera eraman gaitu halaber. Jarraian garatuko dugun lan honetako ardatza adineko pertsonak diren heinean, garrantzitsua litzateke gaur bizi dugun egoera demografikoan apur bat gehiago sakontzea. Aubixak dioenez:

Euskadik, XXI. mendean, mundura dakartzan baino herritar gehiago galtzen dihardu oraindik. Izan ere, gehiago dira honezkero 65 urtetik gorako pertsonak 19tik beherakoak baino. Hau da, biztanleria gutxiagotzen ari denez (3.619 gehiago izan ziren hildakoak jaiotza baino 2018ko lehen hiruhilekoan, Eustatek eskuragarri jarri dituen azken estatistiken arabera), emaitza negatibo horrek gure mapa demografikoa astintzen du, gure eredu sozial, bizikidetzakoa eta kulturala aldatuz (Aubixa, 2019, 1.or.).

CESVren (2021, 30 or.) arabera EAEn, 2019rako behin-behineko datuek adierazten dute hazkunde naturala (jaiotzen eta heriotzen arteko aldea) negatiboa izan dela EAEn zazpigarren urtez jarraian, bilakaera positiboa izan duten aurreko 9 urteen atzetik: aurtan 15.418 jaiotza erregistratu dira, aurreko urtean baino % 4,2 gutxiago, eta 21.560 heriotza, 2018an baino % 0,9 gutxiago. Horren ondorioz, -6.142ko hazkunde begetatiboa gertatu da, edo, bestela esanda, -2,8. 2019ko saldo negatiboa 2018an baino handiagoa da beraz, jaiotzen jaitsiera heriotzera baino handiagoa delako-

Baina azken urte hauetan Covid-19aren ondorioz izandako pandemiak eragin esanguratsua eduki du gizarte demografiari dagozkion datuetan ere. CESVren (2021)



arabera, Euskadin, estatuan lehen Covid-19 gaitza jasan zuen erkidegoetako bat, 2021eko urtarrilaren 3an (Osakidetzaren datuak) 119.703 pertsona zeuden kutsatuta, eta horietatik 3.103 hil ziren. Gainera, birusa bereziki kaltegarria izan zen adinekoen artean, eta gurea zahartutako gizartea da; horrek bereziki hilgarritasun handia eragin du adin aurreratuenetan: 80-89 urte bitartekoetan 100.000 biztanleko 0,18tik gorakoa da, eta 90 urtetik gorakoetan 100.000ko 0,26tik gorakoa.

Gizarte eta osasun testuinguru honetan, pertsonok are eta gehiago estimatzen dugu pandemiaren aurretik genuen bizitza, edo are eta zehatzago, bizitza-kalitatea. Pandemia honetan adineko pertsonak ordaindu duten prezio altuak, etorkizunean sumatuko dugun eskubide eta baliabide falta jarri du agerian, batez ere egoitzetan bizi izan diren pertsonen kasuan, zeintzuek egoera larri eta muturreko baldintza artean, gaur, merezi duten zaintza eta errespetua aldarrikatzen duten. Beraz, bizitza kalitatea definitu genezake:

OMSen (2002, 5.or.) iritziz bizitza kalitatea, norberak bizitzan duen posizioaren pertzepzio gisa ulertu genezake, bizi den kultura-sistemaren eta balioen testuinguruaren barruan eta haren helburu, itxaropen, arau eta kezkei dagokiona. Espektrora zabaleko kontzeptua da, eta modu konplexuan biltzen ditu pertsonaren osasun fisikoa, egoera psikologikoa, independentzia-maila, gizarte-harremanak, sinesmen pertsonalak eta ingurunearen ezaugarri nabarmenekiko erlazioa..

Horretaz, definizio hau interpretatu ostean adierazi dezakegu bizitza kalitateak zerikusi gutxi duela askotan sinonimotzat jo ohi ditugun beste kontzeptu batzuekin, esaterako mendekotasun edo dependentziarekin. Izan ere, sarri ez ditugu argi izaten termino bakoitzak gordetzen dituen ezaugarri eta xehetasunak:

Mendekotasuna duen pertsona bati buruz hitz egiten dugunean, CREren (2016) hitzetan, honako honi buruz ari gara: adinagatik, gaixotasunagatik, desgaitasunagatik, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sensorialik ez izateagatik edo galdu izanagatik, eguneroko bizitzako oinarritzko jarduerak egiteko beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza garrantzitsu batzuk behar dituzten pertsonak. Edo, adimen-degaitasuna edo gaixotasun mentala duten pertsonen kasuan, autonomia pertsonalerako beste laguntza batzuk behar dituztenak.

Azpitarratu behar da pertsonak zahartzen doazen heinean, haien bizi-kalitateak berebiziko eragina duela autonomiari eta independentziari eusteko gaitasunean. Aurretik aipatutako informazioa kontuan hartuta esan dezakegu biztanleriaren batez besteko adina luzatzen ari den heinean autonomoak izaten jarraitzeko urte gehiago eskaini dizkigula bizitzak. Faktore hau ordea bizitza-itxaropenaren ikuspegitik oso positiboa den arren, honek beste behar eta baliabide batzuen eskakizunak ekartzen ditu batera. Horien artean, bizitegi-premiaren baliabidea da eztabaidatuena.

Lebrusánek (2020) adierazten du autonomiaren luzapen hori ez dela egoitzetan bizi diren pertsonen murrizketarekin lotu behar (gure herrialdean pisu txikia izan baitu beti adinekoen bizitegi-premien konponketak, % 3,2 inguru), baizik eta etxean modu independentean egoteko gero eta lehentasun handiagoa bilatzearekin. Horrela, belaunaldi arteko etxe-unitateak murriztu diren heinean, pertsona bakarreko etxeoen unitateak askoz gehiago hazi dira +65en artean. Izan ere, zahartu ahala etxean jarraitzeak arreta handia jaso du nazioarteko literaturan, *ageing in place* (etxean edo etxean zahartzea) kontzeptupean, adinekoarentzat onura ugari dituela erakutsi baitu.

Adinekoek etorkizunean bizitzen jarraitu nahi duten tokiari buruz zer lehentasun dituzten jakiteko ikerketak egiten diren bakoitzean, behin eta berriz agertzen da etxean eta ohiko ingurunean ahalik eta denbora luzeenean bizitzeko nahia. Eta lehentasun horri eutsi egiten zaio bakardade-egoeran dauden edo zainketak behar dituzten hipotesietan ere (Rodríguez, 2021).

Etxean zahartzeak erabaki aktiboa eta desira baten adierazpena eskatzen ditu Lebrusánen ustez (2020), norberaren bizitzaren gaineko kontrola sinbolizatuz eta zahartzarora jarraitutasun-etapa gisa esperimendatzeko aukera emanez. Hala eta guztiz ere, okupatutako etxebizitzaren ezaugarriak oztopo bihurtu daitezke hauek desegokiak izanez gero, etxebizitza eskasak eragin oso negatiboa baitu zahartzaroko osasunean, gaixotze-tasa handiagoarekin lotzera ere ailegatu izan da. Azkenik aipatu behar da adinekoak beren etxeetan geratzea dela Estatuarentzat aukerarik merkeena.

Guzti honetatik ateratzen dugun ondorioa nagusia da zaintza lan eta baliabide egokiak eskura izatea funtsezkoak direla zahartzaroan desio dugun bizimoduari eutsi ahal izateko. Inoiz ez gara ehuneko ehunean autonomo ez independenteak izango, eta

bizitza-etapa bakoitzean zaintza premia horien ezaugarriak aldatzen joaten dira. Beraz, zaintza lanen garrantzia aldarrikatzeak badu bere pisua. Abiapuntu honetatik garrantzitsuena, etorkizunean nahi dugun bizitza eredua garatzea litzateke, zaintza lan eta baliabideek gorde behar dituzten ezaugarrietan lehentasunak ipiniz, etxebizitza integralen beharra aldarrikatuz eta gure erabakitzeko eskubideari eutsiz, dena delako adina dugularik.

Aubixa Fundazioak (2019, 1 or.) aipatzen duen moduan, zaindu behar gaituzte, ez baitago bestela bizitzerik: haurtzaroan zaindu behar gaituzte; nerabezaro eta gaztaroan, nahiz eta gu premia horren jakitun izan ez; helduaroan, gaixotasun batek jotzen gaituenean; zahartzean, geure kabuz aritzeko gauza ez garenean. Zaintza behar izatea besteen premia izatea da, zaurgarriak baikara, hauskorak. Arriskuan baikaude. Gure autonomia behin-behinekoa, erlatiboa eta egoeraren araberakoa baita.

Zaintza lan hauen karga ordea emakumeengan erortzen da sarri, eta paradoxikoki, bizitza osoa zaintza lanetan aritu ostean, euren zahartzaroan laguntza eta baliabide gabe aurkitzen dira askotan. Asko dira, genero perspektibatik zahartzaroari buruz idatzi duten emakumeak bizitza-aro honetan suertatzen zaizkien problematiken berri eman eta irtenbideak aldarrikatzeko, zaintza-lanen garrantzia azpimarratu eta hau bizitzen erdigunean jartzen saiatuz.

### **3.2 Hirugarren adinarekiko gizarte ikuskera**

Bizitza-itxaropenaren luzapenari esker esan dezakegu lehen adineko kontsideratzen genituen pertsonak gaur ez ditugula hain zaharkituak ikusten. 60 urte baino gehiagoko pertsonen bizitza-estiloak aktiboa izaten jarraitzen du kasu askotan. Alde batetik, adineko pertsonak familia giroan rol garrantzitsu bat izaten jarraitzen dute; bestetik, ekonomiari dagokionez urte horiekin oraindik eragile ekonomiko garrantzitsuak izaten dira. Askok, kirola egiten jarraitzen dute, ekintzaileak dira, ikasten jarraitzen dute, edota familian (seme-alabak eta bilobak) eta gizartean laguntzen dute, beharrezkoa den guztietan. Beste hitz batzuetan esanda, zahartze-aktibo bat mantentzen dutela, alegia. OMSren (2002, 79. or.) aburuz, zahartze-aktiboa: "zahartu ahala pertsonen bizi-kalitatea

hobetzeko osasun-, partaidetza- eta segurtasun-aukerak optimizatzeko prozesua" litzateke <sup>1</sup>.

Hau errealitatera eramateko asmoz, Eusko Jaurlaritzak 2015. urtean 2015-2020rako Zahartze Aktiboaren Euskal Estrategia atera zuen. Hala eta guztiz ere, gizartean adinekoei buruz dugun ikuskera oso baldintzatuta dago. Zahartze-prozesu horren parte diren pertsonetikiko gaitzespena sentitzen dugu sarri, gaur egun gizartean auki daitezkeen aurreiritziak askotarikoak baitira. Adinekoen alderdi negatiboak azpimarratzeko joerak, euren gaitasunak gutxiestera eramaten gaitu, gizartean isolatu eta baztertzen ditugularik.

SEGGren (2021, 4 or.) iritziz, adineko pertsonen buruzko informazioak oso negatiboak eta sentsazionalistak izaten dira askotan: osasun-arazoak, hauskortasuna, bakardadea, pentsioen karga ekonomikoa, osasun-kostua. Adin-talde horri lotutako estereotipoen eta aurreiritzien arabera, gastu bat dira, eta, gainera, jada ez dute ekarpenik egiten, errealitatea oso bestelakoa bada ere. Lorente, Brotons eta Sitgesek ere hala diote:

Gizarteak adineko pertsonen buruz duen ikuspegia batez ere negatiboa da, eta honako irudi hau du ardatz: gainbehera fisikoa (gaixotasunen intzidentzia handitzea, gaitasun funtzionalen gainbehera, etab.), motibazioa (interes falta), gizartea (deslotura soziala eta bakardadea) eta nortasuna (zurruntasuna eta malgutasunik eza, sormen gutxi, etab.) (Moreno, 2010; Carbajo-Vélez, 2009). Zahartzaroaren ikuspegi estereotipatu hori (Butler, 1969) *edadismo/ageism* gisa definitu da, eta zahartze aktibo eta osasungarria arriskuan jartzen duten adinekoei eta zahartze-prozesuari lotutako estereotipo eta aurreiritziei egiten die erreferentzia (Lorente, Brotons eta Sitges, 2020, 7.or.).

Hemendik aurrera, edadismoaren terminoan erdiratuko gara, izan ere, kontzeptu berri honek adinekoen inguruan existitzen diren aurreiritzi eta estereotipoak zehazten lagunduko digu, lehendabizi honen esanahia argi eduki behar den arren. Hauek liriateke Martín (2020) aburuz, terminoarekiko lotura duten ezaugarri batzuk:

- Edadismoa edo zigor gisa urteak betetzeagatik diskriminazioa, zoritxarrez, jada mendebaldeko kultura markatu duen fenomeno ia globala da, pertsona horiek gure gizarteentzako zama bezala estigmatizatzen dituen. Diskriminazio mota

<sup>1</sup> Aipu literala, norberak itzulia. Dokumentu honetako aipu literal guztiak jatorrizko hizkuntzatik euskaratuak izan dira, hitzez-hitze itzulpena erabiliz.

hau identifikatu izan daiteke gaur, Covid-19 aren eragina dela eta, are nabarmenagoa baita esaterako osasun zentroetan pertsonak adinaren arabera hautatzeko orduan, arbitrariotasun-egoerak jendaurrera atera baitira (87.or.).

- Edadismoak kulturaren eta gizartearen aurrera egiten du. Pertsona guztiok baldintzapen-prozesu bat jasan dugu adinagatik, eta horri *adinean aurrera egiteko sozializazio-prozesua* dei geniezaioke. Prozesu horren bidez, zahartzaroaren estigma transmititzen da, gutxiespenez deskalifikatuak izaten dira batez ere:
  - Familia- eta estatu-karga gisa
  - Heriotzaren aurretiko fase bezala
  - Pertsona ez-aktibo gisa
  - Fisikoki eta/edo psikikoki “hondatuta”
  - Kolektibo homogeen eta berdina gisa, guztiei tratamendu bera eman behar zaiena edo parametro berberak identifikatu behar zaizkiena (97.or.).

Badira ordea, diskriminazio multzoaren artean nabarmentzen diren estereotipo nagusi batzuk. Carbajo Velez-en ustez (2009), edadismoak hiru diskriminazio mota nagusi eragiten ditu:

- *Estereotipo biologikoa*: medikuen ikuspegiak eragina izan du zahartzea senilitate gisa ulertzeko orduan. Honen ondorioz, zahartzarora aspektu fisiko betetako bizi-etapa gisa ulertzen da, ezintasunean, gaixotasunetan edota nahasmendu psikofisiologikoetan zentratuz soilik. Halaber, ospitaleetan eta adinekoen egoitzetan etengabeko mediku-laguntza behar duen etapa gisa ere kontsideratzen da zahartzarora, heriotzaren hurbiltasunaren ikuspegitik nolabait, 65 urtetik aurrera osasun-galtzearen ideia faltsu hori asimilatuz.
- *Estereotipo psikologikoa*: estereotipo honek areagotu egin du ondorengo mitoa, hau da, zahartzarora jarraian aipatuko diren baliabideek narriadura eta gainbehera jasaten dutela: psikologiko-sentsoriala, arretazkoa, oroimena, ezagutza, gaitasunak, nortasuna, izaera etab. Baita gaitasunei loturikoak ere: sormen eskasia, isolamendu intimista... edota gaixotasunei dagozkienak:

antsietatea, depresioa, portaera zurrun eta malgu ezina, umore-aldaketa eta sentimendu aldaketen etapa gisa mitifikatzen dira.

- *Zahartzaroaren estereotipo soziologiko edo soziala:* eragina izan du tradizionalki adinekoak komunitate -interes sozialekiko duen alferkeria-, isolamendu, inproduktibitate eta deslotura konnotazioetan. Berrikiago, zahartzaroa erretiroarekin parekatzeak, oro har baliabide ekonomikoetan defizitarioa denak, irudi gutxiesgarria areagotu du. Zahartzaroa pobreziaarekin, asiloarekin, abandonuarekin eta bakardadearekin berdindu nahi duen estereotipo faltsua litzateke hau ere.

Beraz, laburpen gisa Martínek (2020) fenomeno honi buruz ondorengo baieztapenak mahaigaineratzen ditu, “*gizarte eskubideak ez dira inoiz zaharkitzen*” ideia aldarrikatzen duelarik:

- Edadismoa adinekoek jasaten duten diskriminazio-modu maltzurrenetako bat da.
- Egoera hori gai ideologikoa da, biologikoa baino gehiago, eta aldaketa sozialak egitea eskatzen du.
- Edadismoak giza eskubideen urraketa eragiten du.
- Edadismoak gizartearen alor guztiak hartzen ditu, gizarte-egituren parte da eta eremu guztietan agertzen da (politikoa, kulturala, ekonomikoa, zientifikoa, etab.).

### **3.3 Bizitegi-baliabideak: Apartamentu babestuak eta etxebizitza komunitarioak**

Gaur egun, bizi itzaropena igotzearekin batera adin nagusitasunari lotutako hainbat problematika sortu zaizkigu. Hauen artean topatu ditzakegu jada arestian aipatutako hainbat arazo, besteak beste, gaixotasunak, menpekotasunak, bizi kalitatearen galera etab. Aldaketa guzti hauek ordea, berarekin ekarri dute feminismoa hainbat eta hainbatetan goraiatzen saiatu dena, alegia, zaintzen beharra. Izan ere, feminismoaren ildo garrantzitsu batek azken urteetan egin duen borroka itzela hortik joan da, zaintza bizitzen erdigunera ekartzearen beharraz. Borroka honek, gizarte kapitalista eta zantzu

neoliberalak gordetzen dituzten oinarrien aurka joatea du helburu, lehen aipatu bezala zaintzak bizitzen erdigune bihurtuz. Izan ere, kapitalismoak bizitzen erdigunean lan merkatua jartzen du eta horrek zaintza eta zaintza lanen balioa guztiz gutxiesten du.

Zaintza hauek bermatzeko ordea badakigu, gaur egun sare informal-familiarrarekin ez dela nahikoa. Garai batean horrela egiten zen, baina gaur egun badaude zenbait faktore honek horrela jarraitzea ekiditen dutena. Esate baterako, emakumea lan munduan murgilduta egotea, honek, zaintza-lanetara zuzendutako denboraren gutxitzea ekarri baitu, bere denboraren berrantolaketa bat gauzatuz.

Rodriguezen (2021, 33. or.) hitzetan, duela hogeit hamar urte baino gehiagotik, zahartzeari eta iraupen luzeko zaintzei buruzko txostenetan ohartarazi da, laguntza informalaren ratio hori murriztu egin dela, bai dinamika demografiko beraren ondorioz, bai adin ertaineko emakumeen rol-aldaketaren ondorioz, betidanik zaintzaileen segmentu nagusia izan baitira.

Baliabideei dagokionez, emakumeek gizonek baino familia-laguntza gutxiago jasotzen dute, eta, beraz, gehiago bihurtzen dira gizarte-zerbitzuen arretaz baliatzen diren pertsonen artean, bai etxeko arretan, baita egoitzetan ere. Esan daiteke paradoxikoa dela, familiako kide guztiei laguntza eta zaintza gehien eman dizkieten pertsonak emakumeak izanda -eta ematen jarraitzen dutenak-, hauetako askok oztopoak eta aukera faltak izaten dituzte euren bizitza amaieran beharrezkoak dituzten zaintzak jasotzerako orduan (Rodriguez, 2021, 31. or.).

Beraz, zaintzak berrantolatzeko behar horretan, gaur egun eta Gizarte Zerbitzuen Babes Sistemaren eskutik hainbat baliabide ditugu. Hauen artean aurkitzen dira etxebizitza komunitario eta apartamentu babestuak. Lehenik eta behin ordea garrantzitsua da aipatzea 12/2008 Legea, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, hau baita Gizarte Zerbitzuak arautu eta bestelako dekretuak testuinguratzen dituena. Honen barruan, zehazki 22.artikuluaren arabera, aurkeztu diren baliabide desberdinak arautzen dira, horien artean, aurretik aipatutako etxebizitza komunitario eta apartamentu babestuak, beste askoren artean. Hala ere, zerbitzu hauen garapen zehatzagoa 185/2015 dekretuan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan jasotzen dira, jarraian definitzeko lagungarria izan dena.

Badaude beraz, pertsona hauentzat zuzenduta dauden adinekoentzako ostatu zerbitzuak. Gizarte Zerbitzuei buruzko 12/2008 Legeak definitzen dituen arabera, zerbitzu hauek intentsitate txikikoak dira, hau da, lehen mailakoak dira eta Udalaren bidez kudeatzen dira. Langileen laguntza dute tutoretzako, bitartekaritzako, lagun egite sozialeko eta gainbegiratzeko eginkizunak egiteko, baita, hala badagokio, arreta pertsonala eta etxeko arreta emateko ere.

Helburuen artean, erabiltzaileek komunitate-ingurunean jarrai dezaten ahalbidetzea, erabiltzaileen autonomia pertsonalaren maila hobetzea, mailari eustea eta/edo modu autonomoan moldatzea ahalbidetzen duten gaitasun eta trebetasunen narriaduraren prebentzioa egongo lirateke, baita isolamendu-egoerak saihestu eta erabiltzaile horiei segurtasun-sentimendua ahalbidetzea ere.

Hartzaileei dagokionez, 65 urtetik gorako adineko pertsonen zuzenduta dagoela esan daiteke, egonaldi luzeko ostatu zerbitzua behar dutenentzat baina intentsitate txikiko laguntzarekin aski dutenen perfila izango litzateke egokiena. Azkenik, aipatu behar da ostatu zerbitzu hau kopagoari lotuta dagoela.

Zerbitzu honek bi ostatu modalitate biltzen ditu, egonaldi luzekoak edo iraunkorrekoak –edo salbuespenez, aldi baterakoak:

- Lehen modalitatea **apartamentu babestuak** lirateke.

Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduak 5eko 12/2008 Legean 1.9.3 puntuan azaltzen direnenak. Zerbitzu bera tutoretzapeko apartamentu gisa definitzen da ordea 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoa.

Euskal Autonomia Erkidegoan apartamentu tutelatuak 41/1998 Dekretua, adinekoentzako egoitzako gizarte-zerbitzuei buruzkoarengatik arautuak daude (1998ko apirilaren 7ko EHAA). Hemen apartamentu babestu gisa izendatu eta Gizarte Zerbitzuen Departamentuak (2003, 9.or.) honela definitzen ditu: “etxebizitza autonomoen multzoa, pertsona bakarrekoak edo bikotekoak, erabilera fakultatiboko zerbitzu kolektiboak dituztenak eta baliabide handiagorik



behar ez duten egoera psiko-fisiko eta sozialeko adineko pertsoneri ostatu ematen dietenak”.

Cohousingari gehien gerturaten zaion zerbitzu gisa kontsideratu genezake (aurrerago definituko den kontzeptua) -naiz eta desberdintasun ugari dituzten-, izan ere, adinekoei apartamentu batean bizitzeko aukera ematen zaie, betiere beharrezkoak dituzten zerbitzu eta baliabideak eskura izanda.

Esan bezala, babespeko apartamentuak lirateke etxebizitza komunitarioekiko antzekotasun gehien gordetzen dituzten zerbitzuak, edo behintzat, aukerarik antzekoena. Apartamentu txikiak eta zerbitzu komunak dituzte, apartamentuak alokatu eta zentroarekin zerikusia duen guztia, zerbitzuak barne, kudeatzeaz arduratzen den entitate kudeatzaile batek eraman ohi dituenak. Zerbitzu komunak partekatzen dituzten apartamentu txikiak izan ohi dira; zerbitzu komun hauetaz entitate kudeatzaile bat arduratzen da, bere funtzio nagusia apartamentuak alokatzea eta zerbitzuak kudeatzea delarik (Mogollón eta Fernandez, 2016).

Zerbitzu honen adibide litzateke adibidez Donostiako Berio auzoan eraikita dauden apartamentu babestuak, JOSÉ ARTETXE, 2 - 2009 DONOSTIA helbidean. Entitate titularra Donostiako Udala litzateke eta entitate kudeatzailea berriz, GUREAK ZERBITZU ANITZAK SLU. Guztira, 73 plaza daude eta garrantzitsua da aipatzea guztiak izaera pribatua duten arren, funtzionatzeko era eta ezaugarriak publikoen berak direla (Komunitate eta Osasun Fundazioa, 2022).

- **Etxebizitza komunitarioak** lirateke bigarren modalitatea.

Zerbitzu 185/2015 Dekretuan, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan 1.9.4. puntuan garatzen da. Modalitate hau zaintza maila txikia behar duten pertsoneri zuzenduta dago, lehen mailako arreta den heinean Udalak kudeatzen baitu. Zerbitzu honen ezaugarri eta premiazko baldintzak apartamentu babestuen berak dira.

Honen adibide dira Mons-Intxaurrendoko etxebizitza komunitarioak. Osasuna eta Komunitatea Fundazioak eta Lagunduz Taldeak kudeatuta daude, baliabide nahikorik ez duten 60 urtetik gorako pertsona autonomoentzat zuzenduta. Donostiako Udaleko Gizarte Ongizate Sailak eskaintzen dituen aukeretako bat dira eta gaur egun, 80 pertsona ingururi ematen diete zerbitzua (Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroa, 2021).

Bestalde, mendekotasun maila altua (II.Gradutik aurrera) duten adineko pertsonentzat ere bada egoitza-zentroetara sartzeko aukera. Hauek dira modu informalean “adinekoen egoitza” bezala definitzen ditugunak nahiz eta jakin zaintza intentsitate handiko zerbitzuak direla, 24 ordukoak; ohiko etxebizitza utzi eta etxebizitza komunitario hauetara aldatzeko pentsatuak. Bigarren mailakoak diren heinean, Foru Aldundiaren bidez kudeatzen dira izaera publikoa duten plaza guztiak.

“Egoitza geriatrikoen aukerei dagokienez, aniztasun handia dago, kokalekuaren, tamainaren eta abarren arabera. Arreta-zerbitzu oso handia da, besteak beste, ostatua, janaria, garbiketa eta arreta mediko integrala. Zerbitzu horiek oso garestiak dira. (...) Autonomia-erkidegoen arteko prezio-aldeak %40ra iristen dira, eta preziorik altuena Euskadin dago; baxuena, berriz, Extremaduran. Zehazki, 11.500 euskal herritar inguru bizi dira egoitza geriatrikoetan. Europar Batasunaren barruko prezioen arteko aldeei dagokienez, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiek 71,56 euroko gehieneko prezioa ezarri dute plaza publiko bakoitzeko. Araban, aldiz, erabiltzaile bakoitzeko gehieneko tarifa ez da 972 euro baino handiagoa hilean (M. JOSÉ TOMÉ, 2015), hau da, batez beste 32,5 euro egunean (Mogollón eta Fernandez, 2016, 55.or.).

Azkenik, eta berriz ere zaintza lanen erantzukizunaren ideia berreskuratuz, kontuan hartu behar dugu *39/2006 Legea, abenduaren 14koa, autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzkoa*, hemen biltzen baitira, izenburuak dioen bezala, mendekotasun mailaren arabera eskatu ahal direnak. Rodriguezek (2021, 34. or.) azpimarratu bezala, lege honen aplikazioak etxeko zaintzalanak prestazio ekonomiko baten bidez aintzatestea eta Gizarte Segurantzari dagozkion kotizazioak ordaintzea ekarri du, horrela, zaintzaile asko (gehienak emakumeak)

laguntza honetaz baliatu ahal izan dira, nahiz eta zenbait autonomia-erkidegotan zenbatekoak pixkanaka murriztuz joan diren, haien jatorria jada oso txikia bazen ere (Rodríguez, 2021, 34.or.).

### **3.4 Bizitegi-baliabide berritzaileagoak: *Cohousing* esperientziak aztertuz**

Bizitegi-baliabidearen inguruan atera diren eztabaidei esker, azken urteotan, ezagunagoa egin da Cohousingaren termino eta errekurtoa. Bultzada berritua izaten ari da Euskadin. Alde batetik, hau aurrera eraman nahi duten ekimen ugari sortu dira, eta, bestetik, administrazio publikoak harmen eta interes handiagoz ari dira termino hori araudian eta plangintza estrategikoan txertatzen. Hala ere, oraindik herritarrontzat nahiko berria den zerbitzua denez, jarraian honen nondik norakoak definitzeko saiakera egingo da.

Termino aldetik egokiena, gaztelaniaz “Covivienda” gisa itzul genezakeena litzateke, izan ere, nazioarteko onarpen eta ezarpen handiena izateaz gain, Eusko Jaurlaritzaren araudian eta plangintza estrategikoko dokumentuetan horrela jasotzen da, hala nola *Euskadiko Etxebizitzaren Plan Zuzentzailean* edo *Alokairua Sustatzeko Jardueren eta etxebizitzak eta bizitegi-eraikinak erabiltzeko beste modu batzuen Agindu-proiektuan*; alegia, gaur egungo informazio publikoan (Cuesta, C., eta et al., 2020). Euskaraz ordea, Cohousinga etxebizitza kolaboratibo gisa itzulia izan da eta ondorioz termino hau da baliokidetzat joko duguna.

Kontzeptu-mailan, bi dimentsio identifika ditzakegu: alde batetik, *fisika edo arkitektonikoa*, higiezinari eta haren banaketari erreferentzia egiten diona, eta, bestetik, *soziala edo komunitate-dimentsioa*, kideen parte-hartzeari erreparatzen diona. Horrela, Cohousing gisa ulertzen ditugu espazio pribatu eta baliabide partekatuekin konbinatzen dituzten proiektuak. Beste era batera esanda, hitzak berak daraman “co”- aurrizkia individualismoaren antitesi gisa uler liteke, non pertsonak parte-hartze maila handiagoa lortu nahi duten, baita etxebizitzaren bidez beren inguruko espazio eta baliabide gehiago erabili ere (Cuesta, C., eta et al., 2020).

Bandford (2005), Urban, D. (1982) edo McCamant Y Durrett (1994; 2009) arabera, Cohousing etxebizitzaren ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

- *Espazio pribatuak eta publikoak konbinatzea.* Eremu pribatuko espazioak eta espazio partekatuak daude aldi berean. Espazio pribatuaren tamaina pertsona batentzat nahiz hainbat kiderentzat edo seniderentzat izan daiteke.
- *Gizarte-mota eta testuinguru desberdinetara egokitzea.* Ez zaie soilik pertsona jakin batzuei zuzentzen, konponbide demokratikoak bilatzen dituzte, kontuan hartuta komunitate bakoitzak bere irizpideak ezartzen dituela bazkideen profila hautatzeko.
- *Interdependentzia etxeko beharren kudeaketan, komunitate bakoitzaren beharretan eta nahietan oinarrituta.* Umeen heziketa, zaintza, zahartze aktiboa zein sozializazio premiak asetzeko erabiliak izaten dira sarri. Izan ere, autonomia pertsonalaren eta konpromiso komunitarioen arteko oreka hori, borondatez onartutako interdependentziaren bidez ematen da.
- *Baliabide materialak aprobetxatzea.* Partekatutako etxebizitzak eta ekipamenduak kontzientzia ekologikoarekin garatu ohi dira.
- *Horizontaltasuna eta autogestio komunitarioa.* Barne-demokraziaren dinamiketan oinarritzen dira. Egoiliarrek rol eta lidergo desberdinak hartzen dituzte, komunitatean subiranotasuna mantenduz eta eraikinaren mantenua zein komunitatearen beharrak modu autonomoan kudeatuz.
- *Forma juridiko kooperatiboa, jabetza kooperatiboa eta erabilera-lagapena.* Etxebizitzaren jabetza kooperatiba-pertsona juridikoan datza, jabetza-modu horri esker, jabetzari buruzko erabakiak erkidegoaren gain geratzen dira, eta ez norbanakoen gain.

- *Parte-hartzea.* Eraikinaren diseinua, kokalekua eta baliabide ekonomikoak bilatzeko fasetik eraikinaren bizitza kudeaketa eta mantentze-lanetaraino. Betiere kontuan hartuz hau borondatezkoa dela eta pertsona bakoitzaren konpromiso-mailaren arabera dela.
- *Izaera prozesuala.* Oro har, etxebizitza hauek eta egoiliarren komunitateak ez dira produktu bukatutzat hartzen, etengabeko aldaketan eta ikaskuntzan diharduen zerbitzu gisa baizik, etengabe ari baitira espazio-irtenbideak eta antolamendu-egiturak errealitate sozial eta ekonomiko aldakorretara egokitzen.
- *Bizitza normal baterako agertokia.* Biltzen dituen helburu pragmatikoengatik esan daiteke komunitateko bizimodu guztietatik dela gizartearen gehiengoaren korrontetik hurbilen dagoena.

Hala ere, kontuan hartu behar dugu Cohousing modalitate desberdinak daudela, bakoitzaren berezko hartzaileekin, besteak beste, *Cohousing eskuragarria* (etxebizitza beharra dutenentzat), *Cohousing landatarra* (etxebizitza jasangarrien alde egiten dutenentzat eta azkenik, *Cohousing senior* deritzoguna. Azken modalitate hauek adinekoei zuzendutako etxebizitzak lirakeke, hau da, jarraian gu erdiratuko garen modalitatea.

Legediari dagokionez, Cohousinga bezalako elkarlaneko etxebizitzek oztopo ugari aurkitu ohi dituzte Euskadin modalitate hauek arautuko dituzten erreferentziak topatzeko. Mogollón eta Fernandezek (2016, 58-59.or.) nabarmentzen dute, elkarlaneko etxebizitza-taldeek prozesuan dauden zailtasunei buruz hitz egitean azaltzen duten lehen arazoietako bat Euskadiko lurzorua eta eraikinen prezio altuari eta higiezinaren merkatuan orientatzeko zailtasunei buruzkoa izaten da, oso teknifikatuta baitago eta enpresa sustatzaile eta eraikitzaile handien esku baitago. Beharrezkoa litzateke erregelamendu bat garatzea, legean ia zirriboratu ez diren etxebizitza kolaboratiboaren aukera horiek etxebizitza publikoen eta babes ofizialeko etxebizitzaren sarean benetan txerta daitezkeen.

Horregatik, Mogollón eta Fernandez (2016, 59-60.or.) ustez, ia ezinezkoa da herritar talde antolatu batek baldintza guztiak betetzea titulartasun publikoko orube bat eskuratzeko, bere sustapenerako. Etxebizitza kooperatibak dira euskal testuinguruan daniar, suediar edo uruguaitar etxebizitzen eredu antzekoenak. Lehen aipatu dugun bezala, elkarlaneko etxebizitzetarako gehien bultzatzen den eredu erabilera-lagapeneko etxebizitza-kooperatiba da. Kooperatiba horrek, jabetzaren eta alokairuaren arteko tarteko formatua bilatzeaz gain, jabegoa kooperatiban bizitzeaz gain, kudeaketarako, antolaketarako, sozializaziorako eta elkarri laguntzeko mekanismo kolektiboak ezartzea ahalbidetzen du.

Beraz, esan daiteke legedi honen baitan ia ezinezkoa dela Cohousinga bezalako ekimen bat aurrera eramatea. Horregatik, gaur egun, euskal testuinguruan ez dago elkarlaneko etxebizitzarik, edo behintzat halakotzat hartzen denik.

Hala ere, honetarako eredu izan dira Europar Iparraldeko herrialde eskandinabiarrak, izan ere, aitzindariak izan dira etxebizitza modalitate berezi hauek bultzatu eta praktikara eramaten. Aipatzekoak dira bereziki Suedia eta Dinamarkaren kasua. Herrialde horietan, erabat orokortuta eta hedatuta dago mendekotasun-egoeragatik laguntza behar duten pertsonentzako astean 7 egunez 24 orduko zerbitzua eskaintzen duten ostatu-eredua (etxebizitzak).

### *3.4.1 Suedia*

Rodriguezek (2021, 76.or.) azaltzen du, hirurogeiko hamarkadatik Suedia bere eskaintza dibertsifikatzen hasi zen. Zerbitzuak dituzten etxebizitzetatik hasita (servicehus), talde-etxebizitzetara igaro (gruppboenden) eta bizitzaren bigarren etaparako etxebizitzak (boenden för den andra livshalvan) garatu ziren arte, azken honen artean Co-housinga (gemenskapsboenden) eta etxebizitza-seniorra (seniorboenden) aurkitzen direlarik.

Modalitate horiek guztiak alokairukoak edo erosketakoak izan daitezke, eta udaleko gizarte-zerbitzuen aldetik premiari buruzko alde aurreko balorazioa egin beharrik gabe eskura daitezke. Higiezin enpresari (udalekoa edo pribatua) eskatu edo etxebizitza horiek sustatzen dituen elkarte edo kooperatibako kide egin besterik ez dute egin behar (Rodriguez, 2021, 77.or.).

Hori guztia, Rodrigezek (2021,77.or.) nabarmenduta, etxean bizitzeko eta instituzio-eredua alde batera uzteko filosofiarekin. Izan ere, eredu horren arabera, zentroak inguruetik bereizita sortu eta diseinatzen ziren. Eredu berritzaileekin ordea, horiek komunitatean sartzea berreskuratzen da (*aging in place*), eta lehentasuna ematen zaio etxeko arretari.

### 3.4.2 Danimarka

Danimarkako kasuan, Suediaren urratsak jarraitu ziren, laguntza emateko egoitza konbentzionalen gaitzespenari eta eraldaketari dagokienez. Cohousing-aren jatorriari dagokionez, Danimarkan, Holandan eta Suedian sortu zela esan dezakegu, ia modu garaikidean, 1970eko hamarkadaren hasieran. Killockek (2014) azaltzen duen bezala, Danimarkako lehen komunitateek *bofoellesskaber* izena jaso zuten, ingelesez *living communities* gisa itzuliko litzatezkeenak. 1980ko hamarkadaren amaieran 120 baino gehiago altxatu ziren Danimarkan, eta hogeita hamar urte geroago, 1000 baino gehiago estimatzen ziren mundu osoan, eta beste hainbeste sortze-prozesuan (Lietaert, 2009, 578. or.). Hala, aipatutako arreta-eredua pertsonaren lehentasunetan oinarritzen da, eta, batez ere, eguneroko bizitzako jardueretan.

### 3.4.3 Espainia

Estatu mailan ere egon dira eta badaude gaur egun funtzionatzen jarraitzen duten etxebizitza eredu berritzaileak. Batzuk besteak baino garatuagoak, beste proiektu txikiagoentzat erreferente bilakatu direnak, honen adibide dira esaterako <sup>2</sup>:

- “*Entrepacios*” (2018). Madrilgo Erkidegoak estatutuak onartu dituen erabilera-eskubidearen modalitateko lehen etxebizitza kooperatiba da.
- “*Trabensol*”. Adinekoentzako Gizarte Bizikidetzaren Zentroa, Torremocha de Jarama, Madril. 2013az geroztik elkarrekin bizi dira.

<sup>2</sup> Proiektu hauei buruzko informazioa ondorengo helbidetik jaso izan da: <https://www.abaraskaetxea.eus/#/>

- “*La Borda Coop*”. Erabilera lagapeneko etxebizitzaren kooperatiba, adin guztietako 50 pertsonak baino gehiagok osatua, eta Kataluniako Can Batlló multzoari lotua . Eraikitzen ari dira 2018tik.
- “Arterra Bizimodu” 2014ko udaberrian Nafarroako Artieda herrian jaiotako elkarbizitza proiektua da.
- “*Habitat Colaborativo*” lan kooperatiba. Diziplina anitzeko profesional-talde bat da, hainbat arlotan jarduten duena, hala nola gizarte-ekonomian, finantzetan, higiezin sektorean edo landa-garapenean. Gure gizartearen bizitegi-zailtasunei irtenbideak ematen dizkioten hainbat proiektu bultzatu ditu Granada, Baena, Jaenen etab.

#### 3.4.4 Euskal Autonomia Erkidegoa

Euskadi mailan ordea oraindik ez da horrelako ezaugarriak betetzen dituen ekimenik aurrera eramanez, nahiz eta antzekotasun handiak dituzten proiektu ugari garatzen ari diren. Jarraian, proiektu hauetako batzuk aipatu eta zertan datzan azalduko da labur-labur:

##### Gipuzkoa:

- “Lugaritz” zahartzearen inguruko berrikuntzan aurrera egiten duen hiri proiektua Donostian <sup>3</sup>.

Matia Fundazio eta Matia Ikerketa Institutuak (Diziplina anitzeko ikerkuntza gerontologiko aplikatua landuko duen ikerketa zentroa) bultzatua. Zahartzen ari diren eta endekapenezko gaixotasunen bat azaldu zaien pertsonentzako bizitza osorako 51 bizitoki hartuko dituen eraikina litzateke. Hiru eraikinak auzoan integratuta daude, inguruko etxebizitzaren altuerara egokituta, eta plaza batek batzen ditu. Bizitokiak tamaina

---

<sup>3</sup> Informazio gehiago nahi izanez gero jarraian proiektu bakoitzaren web orria eskuragarri: <https://www.matiafundazioa.eus/es/noticias/lugaritz-un-proyecto-de-ciudad-que-avanza-en-la-innovacion-en-envejecimiento-en-donostia>



eta ezaugarri ezberdinak izango dituzte. Alokairuan eskainiko diren bizitokien multzoan hiru *living lab* jarriko dira.

*Living Lab* bat berrikuntza irekiko bilaketa-metodo bat da, produktu eta zerbitzu berriak garatzea helburu duena. Ikuspegiak azken erabiltzaileekin batera sortzeko prozesua sustatzen du, baldintza errealetan, eta publiko-hiri-herritar elkarteen ekosisteman oinarritzen da (Dubé eta et al., 2014, 11.or.). Horietan, desgaitasunari aurre egiteko eta pertsonen eguneroko bizitza errazteko teknologien eta laguntzarako produktuen eraginkortasuna bertatik bertara aztertuko dute.

Hala, proiektuaren helburu nagusia «etxean edo etxean bezala bizitzeko» paradigma gauzatu nahia dela esan daiteke. Hau da, etxeko bizimodu eredu bat sustatu nahi du, pertsonalizatua, zahartzen ari den biztanleriaren heterogeneotasunari erantzuten diona, kontuan hartuta ehuneko handi batek laguntza beharra izan dezakeela bizitzaren bukaeran.

Honez gain, proiektuak eguneko egoitza bat garatzeko asmoa du, auzoko beharrezaneia eta etxebizitza horietako bizilagunek dituztenei erantzuteko. Mota honetako ekimenak baliagarriak dira *Donostia Lagunkoia* proiektuaren prozesuan aurrera egiteko. Lugaritz proiektuak 2009an du abiapuntua, orain, hamarkada bat beranduago gauzatu denez, proiektuak egokitzapena behar izan du, gaur egun zahartzearen alorrean Europan eta, beraz, Gipuzkoan dauden premietara eta azaleratzen ari diren joeretara egokitzeko.

Proiektuaren alderdi azpimarragarriak:

- Ekimen pilotua da.
- Berrikuntzako proiektua da, ikerkuntzaren alderdia ere baduelako. Euskadin abian jarriko den mota horretako lehenengo esperientzia da. Horren inguruan ezagutza sortu beharra dugu, errepikatzeko eta orokortzeko aukera aztertu ahal izateko. Ondorioz, luzetarako ikuspegiarekin heldu beharreko proiektua da, eta, besteak beste, honako alderdi hauen inguruan emaitzak lortzen joatea litzateke xedea:
  - Pertsonetan eta euren bizi kalitatean dituen ondorioak, beste ostatu-eredu batzuekin alderatuta; eta bakardadearen pertzepzioan duen

eragina, gaur egun gai horrek kezka eragiten baitu gizarte garatu guztietan.

- Laguntza behar duten pertsonen bizitzan diseinu mota horrek duen eragina; baliabideen kontsumoaren azterketa, kostuari eta eraginkortasunari erreparatuko dien azterlanaren esparruan.
  - Herritarrek mota horretako bizitokien inguruan duten iritzia.
- “Elkarbidean”<sup>4</sup>.

Donostian elkarlaneko etxebizitzak (Cohousing) aztertzeko, diseinatzeko eta etorkizunean eraikitzeko sortutako elkarteak da. Bertako bazkideak 50 eta 70 urte bitartekoak dira, izan ere, zahartzaro aktibo eta aberatsaren aldeko apustua egin nahi dute; era berean, ingurumenaren iraunkortasuna kontuan hartzen duten etxebizitzak eta espazio kolektiboaren bidez komunitatea sortzen duten etxebizitzak alde eginez. Helburua, elkarte gisa, proiektua azaldu eta zabaltzea litzateke, eta, azkenik, kontsumo-kooperatiba gisa eratzen joatea. Gaur egun, hiri bereko beste gazte-elkarte batekin (Abaraska) belaunaldien arteko proiektu batean parte hartzeko aukera baloratzen ari dira, jarraian azalduko dena.

- “Abaraska”<sup>5</sup>

Abaraska Etxebizitza Kooperatibo proiektua Donostian jaio da, etxebizitza arazoa gehien pairatzen duen hirietako batean, hain zuzen. Etxebizitzak gehiegizko prezioa, alokairuaren eskaintza urria eta egoera honek sortutako burbuila, etxebizitzak inbertsio balore gisa ulertzearen ondorio zuzena dira, eskubide bat izan beharrean, espekulaziorako erabili ohi den ondasun materiala. Donostiaren kasuan, gainera, bigarren etxebizitza kopuru altuak eta azken urteetan turismora zuzendutako etxebizitzak izugarri ugartzeak, eskaintza nabarmen gutxitu du arazoa are larriagoa bihurtuz.

---

<sup>4</sup> Hemen kontsultatu daiteke elkartearen web orria: <https://www.elkarbidean.com/asociacion/>

<sup>5</sup> Hemen kontsultatu daiteke proiektuaren web orria: <https://www.abaraskaetxea.eus/#/>

Gaur egun Abaraska 28-60 urte bitarteko hirurogei bat pertsonak osatzen dute. Adin, genero eta kolektibo desberdinetako jendea bizi-proiektu bateratu batean elkartzeko helburuz sortua. Donostian bizi arren egungo etxebizitza politikak hiritik ateratzera behartzen dituztela salatzen du talde honek, eta egoerari alternatiba erreal bat proposatzeko asmoarekin jarduten dute: etxebizitza kooperatiboarena hain zuzen ere. Baina helburua ez da soilik behar pertsonal bati soluzioa ematea, etxebizitza-irudimen tradizionalari alternatiba berritzaile hau garatu eta zabaltzeko lan egitea baizik, erakundeekin lankidetzak bultzatuz eta etxebizitza politika publikoak eredu berri hau bere egin dezan saiatuz.

### Bizkaia:

- “Ametsak sortzen” Euskadiko Cohousing elkarteak <sup>6</sup>.

Ametsak Sortzen Elkarteak 2018ko urtarrilean sortutako *Cohousing*, elkarlaneko etxebizitza, Cohousing eta erabilera transferentzia kooperatiben sare bat da. Hau da, pertsonen bizikidetzak eta garapenerako, baliabideen eraginkortasuna eta etxebizitzarako sarbidea sustatzen dituen etxebizitza eredu komunitarioen inguruko sarea da. Benetako beharrei lotutako bizimodu osasuntsuago baterako balioak sustatzen dituen etxebizitza ereduak bilatzen duen heinean, bere jarduerak nagusiak honako hauek dira:

- Cohousing-ean interesa duten pertsona-talde-familien arteko topaketak .
  - Cohousing ereduaren hedapena eta komunikazioa .
  - Cohousing-arekin lotutako foroak, bilerak eta ekitaldiak .
  - Elkarrizketak eta bilerak Cohousing-ean harremana, interesa edo eragina izan dezaketen administrazio publikoekin eta entitateekin .
- “Egunsentia” elkarteak <sup>7</sup>.

Pertsona helduentzako etxebizitza partekatuak bultzatzeko diharduen elkarteak da, nagusiek bere bizitzako azken aroan, lankidetzan eta gizartean dagozkion zereginetan aktiboki parte hartzeko bizileku aproposa eduki dezaten. Aurrera eramaten dituzten proiektuek badituzte hainbat ezaugarri berdin:

<sup>6</sup> Hemen kontsultatu daiteke elkartearen web orria: <https://www.ametsaksortzen.eus/red-cohousing/>

<sup>7</sup> <https://egunsentiaurora.wixsite.com/egunsentia>

- Lagunak eta sozializazio dimentsioa mantentzea, bakardadea ekiditzeko.
  - Bizitza aktiboa izatea.
  - Kidetasuna eta balio komunak edukitzea.
  - Mendekotasuna atzeratzeko saiaketa egitea.
  - Gaitasunak galdutakoan baliabideak eskura edukitzea.
  - Arkitektura ingurune egokiak sortzea gizarteratu, zaintzak antolatzeke etab.
- “Ametxe” Irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimena <sup>8</sup>.

«Ametsak bizi diren etxea», Bizkaiko Gordexolako herrian elkarlaneko etxebizitza bezala aintzinako baserri bat berreskuratu duen landa eremuko erabilera-lagapen erregimeneko kooperatiba da. Heziketaren ikaskuntzan, begirunean eta garapen pertsonalean oinarritutako komunitatea sortzea du helburu, aldi berean nolabaiteko eraldaketa soziala gauzatuz.

Erabilera-lagapen eredu (gaztelerazko *modelo de cesión de uso*), oso hedatuta dago Danimarka edo Uruguai bezalako herrialdeetan. Eredu mota hauek, praktikan jartzen dute etxebizitza kooperatiboaren eredu, erabilera lagatzeko erregimenean, higiezinaren jabetza kolektiboa izanik, betiere kooperatibarena izanik. *Andelen* (Danimarkan kooperatibismotik eta elkartegintzatik datorren eredu) eta *FUCVAM* (elkar laguntzarako Uruguayko etxebizitza kooperatiben federazioa, 600dik gorako kooperatiba autogestionatu batzen) ereduak dira adibide famatuak.

#### Araba:

- “Lagungarri” Gasteizeko lehen Cohousing seniorra <sup>9</sup>.

Irabazi asmorik gabeko eta gizarte-ekimeneko kooperatiba, erretiratuen kolektibo batek sortua. Bizitza alternatibo bat bilatzen dute, besteak beste, bizitza aktiboa egiteko nahia adieraziz, elkarren ezagutzetatik aberastuz eta adiskidetasun eta harmonia ona mantenduz. Kooperatiba bat sortzearen arrazoi nagusia, senideek edota administrazio

---

<sup>8</sup> Hemen kontsultatu daiteke proiektuaren web orria: <https://www.ametxe.eus/>

<sup>9</sup> Hemen kontsultatu daiteke proiektuaren web orria: <https://sites.google.com/view/cohousing-lagungarri-no-socios/cohousing-senior-vitoria-gasteiz>

publikoak ematen dituzten diru-laguntzen mende egotea saihestea da. Espazio pribatu eta komunitarioak dituzten etxebizitzak eraiki nahi dira, etxean bizitzen jarraitu ahal izateko, proiektuan parte hartzen duten pertsonekin batera, baina intimitatea eta pribatutasuna mantenduz zein gizarte-harremanez gozatuz. Helburu nagusia adineko bazkideei arreta osoa eta jarraitua ematea litzateke, behar guztietan, hala nola egoitza, mantenua, osasun-laguntza, laguntza psikologikoa eta erizaintza, bai eta okupazio-terapiako, mantentze fisikoko, kulturalako eta entretenimenduko zerbitzuak ere. Proiektu honen kokapen ideia Gasteizko kanpoaldean (eraztun berdea) eraikitzea litzateke, betiere hiriko erdigunera garraio publikoan sartzeko aukeraren baldintzapean.

Aldarrikatzen dituzten eskaera nagusiak jarraian biltzen dira:

- Hemendik aurrera gure etorkizuna planifikatzea, gure etxea eraikitzea, biharko zainketak antolatzea eta bermatuta izatea, 24 orduko laguntza-beharrak barne (hala badagokio), bizikidetzaren eta independentziaren arteko oreka lortuz.
  - Belaunaldien arteko erreleboa ziurtatzea, kooperatibak bazkide-kopuruari, populazio-banaketari eta adin-piramideari eutsiko diela bermatzeko.
  - Behar ditugun zerbitzuen kalitate gorena lortzea ahalbidetuko digun kudeaketa ekonomikoa zaintzea.
- “Bizikoopton”<sup>10</sup>.

Gasteizko Alde Zaharreko bizilagunek sortutako taldea, oinarritzkoa den etxebizitza beharrari erantzun kolektibo bat emateko asmoz, egungo merkatuaren logikatik kanpo, hau da, eskubidea goraiatu eta jabego behar faltsuari uko eginez. Haien eginkizunetan ondorengo azpi-helburuak gordetzen dira:

- Bazkideak biziko diren eta alde zaharrean kokaturik egongo den etxebizitza promozioaren sustapena bultzatzea.

---

<sup>10</sup> Hemen kontsultatu daiteke proiektuaren web orria: <http://bizikoopton.com/proiektua/>

- Kooperatibaren bazkideei erabilera lagapenean oinarritutako ereduaren bitartez, etxebizitza duin bat eskaini prezio eskuragarri batera, aldi berean etxebizitza hauekin irabazirik ateratzeko aukera itxiz.
- Bazkideen arteko elkarbizitza eta zaintza ahalbidetu, auzoko komunitatearen baitan beste azpi-komunitate bat sustatuz.
- Erabilera lagapenaren eredua zabaldu eta balore berdintsuetan oinarritzen diren proiektuei sostengua eman.

### **3.5 Pertsonan oinarritutako arreta eredua: adineko pertsonak protagonista bihurtuz**

Adinekoak zaintzeak gauza askori erantzutea dakar, ez baita soilik hainbat zerbitzu edo arreta eskaintzea. Adineko bakoitzari babesa eta ahalik eta bizitzarik onena izateko aukerak eskaini behar zaizkio. Halaber, zaintzeko era eta zerbitzu profesional guztiak ez dira berdinak, denek ez baitute aukera ematen helburu horiek lortzeko. Horregatik, pertsonarengan oinarritutako arreta, nolana ere, arreta profesionaletik abiatuta bizitza on baterako egiten den proposamena da.

Rodríguez, Díaz-Veiga, eta Sanchok (2014, 4 or.) uste bezala, oso garrantzitsua da instalazio egokiak eta ongi prestatutako langile nahikoa izateaz gain baliabideak berak geu izaten jarraitzeko aukera ematea. Guretzat garrantzitsuak diren eta ongi sentiarazten gaituzten gauzei uko egin behar ez izatea. Eta gure intimitatea babestea.

Orainarteko egoitza guztiak patroi bera jarraitu dute, patroi instituzionala, alegia. Arreta eredu instituzional honek kritika asko ditu, izan ere, pertsonen gabezietan fokalizatzen den eredua da, hau da, ikuspuntu sanitariotik jarduten duena, pertsonaren helburu eta asmoak ukatuz. Azkenaldia ordea arreta eredu honek sortzen dituen ondorio negatiboak azpimarratu eta salatu dira, beste arreta eredu integral baten aldarrikapean.

Rodriguezek (2021, 45 or.) dion bezala, egoitzak eta beste ostatu alternatibo batzuk guztiz beharrezkoak direla eta izaten jarraituko dutela ziurtasun bat da, gizarte-aldaketei eta aipatutako beharrei egokitua. Baina ekipamentu horiek egoitza tradizionaletatik

desberdinak izan behar dute, besteak beste, pertsonen eskubideen ikuspegian oinarrituak egon behar direnak, duintasuna eta autonomia pertsonala zaintzeko arreta-eredu berriak bermatzen duen bezala.

Izan ere, ikuspegi berri honek aldaketa kopernikarra dakar, sostengu beharra duten pertsonak gizartearen eta botere publikoen aurrean duten jarrerari dagokionez. Mendekotasuna duten pertsona hauek ez dira laguntzaren esparruan diseinatutako baliabide batzuen onuradun soil gisa ikusten, bezero edo kontsumitzaile balira bezela, horrela irizpide utilitarista gaindituz. Ikuspegi berritik, pertsonak eskubide guztiak dituzten herritar gisa hartzen eta onartzen dira. Beraz, tresna eraldatzailea dela esan daiteke, eta, horri esker, herritarrek beren eskubideak eskuratu, eskatu eta gauzatu ditzakete, baita beren betebeharez arduratu ere (Vilà, 2013).

Ikuspegi berri honek pertsonan oinarritutako arreta eredua hartzen du oinarri, zerbitzuan oinarritutako eredua instituzional oro baztertuz. Izan ere, eredua instituzionala oinarritzat duten egoitzetan egondako pertsonak ondorio larriak jasaten dituzte, besteak beste, bere buruari eta ingurukoei buruz dituzten iritzien erabateko aldaketa; aurreko ondasun pertsonalak objektu estandarizatuak ordezkatzeko jatorrizko inguruneari buruzko erreferentziak ezabatzea; bere interesetatik kanpoko jardueretan parte-hartzea; zein segurtasun pertsonalaren zentzua galdu eta bere erreferenteak eta bere bizitza-proiektua zenetik urruntzea. Bizileku-eredua sakon aztertu behar da horretaz, etxe bihurtu arte (*homelike*), erakundeak pertsonengan dituen eragin kaltegarriak aldatzeko (Rodriguez, 2021).

Euskal Autonomia Erkidegoan ere badago *aging in place* terminoari zentzua ematen saiatzen den proiektua, "Etxean Ondo" deritzona, ekimen honen helburu nagusia, zentro gerontologikoetan bizi diren mendeko adinekoei ematen zaien arreta egokitzeko esku hartzeak identifikatu eta jorratzea da, haien nahi, gustu eta lehentasunei erantzuna emateko asmoz (Matia Fundazioa, 2021).

Horregatik, Rodriguezek (2021, 103 or.) azpimarratzen duen bezala, eredua berriarekin transmititu nahi den ideia pertsonaren duintasuna da, egunerokotasunean gauzatzen dena, bere bizitza-proiektua garatzeko eskubideak gauzatzean, etika delarik ekintza eta jarduera profesional guztiak oinarritzeko oinarria.

Bestalde, Pertsonan oinarritutako arreta ereduari gehiago jakin eta aurreko ereduakiko dituen desberdintasunez ohartze aldera, Rodríguez, Díaz-Veiga, eta Sanchok (2014, 10 or.) bi arreta ereduak alderatu nahi izan dituzte horrela:

**2.Taula.** Zenbait arreta-ereduren ezaugarri batzuk.

<b>PERTSONARENGAN OINARRITUTAKO EREDUAK</b>	<b>ZERBITZUAN OINARRITUTAKO EREDUAK</b>
<b>Gaitasunak eta trebetasunak dituzte ardatz</b>	Defizitak eta premiak dituzte oinarri
<b>Erabakiak partekatzen dira</b>	Erabakiak profesionalen esku daude
<b>Jendea ohiko ingurunean ikusten dute</b>	Jendea gizarte-zerbitzuen testuinguruan kokatzen dute
<b>Esperientzia atseginen kopuru mugagabe bat eskaintzen duen bizi-estilo bat dute xede</b>	Aukera kopuru mugatu bat eskaintzen duten programetan oinarrituta planteatzen dute bizitza.
<b>Bizi-kalitatea dute oinarri</b>	Zerbitzu bateko plazak betetzea dute xede
<b>Arazoak konpontzeko taldeak sortzen dituzte</b>	Diziplinarteko taldeetan dute konfiantza
<b>Zuzenean lan egiten dutenak erabakiak hartzea animatzen dituzte</b>	Zuzenean lan egiten dutenen esku uzten dute lana
<b>Erabiltzaile, familia eta langileentzako ekintzak antolatzen dituzte</b>	Profesionalentzako bilerak antolatzen dituzte
<b>Ekimen berriek merezi dute, baita hasiera oso xumea denean ere</b>	Ekimen berriak eskala handian ezar daitezkeenean baino ez dira baliagarriak
<b>Hizkuntza garbia eta lagunartekoa erabiltzen dute</b>	Hizkuntza klinikoa eta teknizismoz betea erabiltzen dute
<b>Esku-hartzea orokorra da, eta pertsonen bizitza-plana du oinarri</b>	Esku-hartzeak alderdi jakin batzuei, jokabide asaldatuei, patologiei, eta abar ematen die lehentasuna

*Iturria:* Rodríguez, Díaz-Veiga, eta Sancho (2014). Pertsonarengan ardaztutako arreta ereduak. Koaderno praktikoak, 1. Egilea: *Norberak egina*.

Pertsonan oinarritutako ereduaren helburuei dagokienez, Rodríguez, Díaz-Veiga, eta Sanchok (2014) honako hauek aipatzen dituzte:

- *Duintasunezko tratua ematea.* Gutako bakoitza desberdina da, eta bakoitzak bere bizimodua du. Hala ere, denok ditugu amankomunean bi nahi garrantzitsu: gure beharrei erantzungo dien arreta profesionalizatua jasotzea, eta bigarrena, errespetuzko tratua jasotzea.



- *Rol desberdina duten profesionalak.* Profesionalek ez dute autoritate edota agindu emaile gisa jarduten, eguneroko ekintzen laguntzaile bezala baizik, pertsonen euren erabakien gaineko benetako agintea emanaz. Hauen funtzioak bestelakoak dira: argibide teknikoak, entzutea, behatzea, laguntzea, motibatzea...
- *Ingurune fisiko atsegina, irisgarria eta esanguratsuan bihurtzea.* Ingurunea oso dimentsio da pertsona guztien ongizaterako. Honen eragina are eta handiagoa mendetasun-egoeran dauden pertsonen kasuan. Pertsonarengan oinarritutako arretaren bidez “etxeko” giro bero bat lortu nahi da ingurune fisikoaz baliatuta, hau da, giro instituzional hotza gogorarazten duen guztia saihesten ahaleginduta.
- *Zentzuzko jarduera terapeutikoak.* Pertsonarentzat esanguratsuak zein estimulagarriak diren jardueren gauzatzea bilatzen da, ohikeriazko jarduera, ekintza aspergarri edota ume-jarduerak baztertuz. Hala ere, aipatzekoa da pertsona ez dela inoiz inongo jarduerarik egitera behartuko, naiz eta jakin bere gustukoa dela, berak erabakitzen baitu zer eta noiz egin nahi duen.
- *Pertsonen, familiak edo ingurukoek pertsonaren arreta/bizitza planean parte hartzea.* Arreta eredu honetan, pertsonak bere arretan parte hartzeko aukera ukalezina da. Hau lortzeko, aukeratzea ahalbidetzen duten egoerak identifikatzen dira. Halaber, profesional, erabiltzaile zein senideez osatutako babes-taldeak eratzen dira esku-hartze adostuak lantzeko (betiere pertsonak onartzen badu).
- *Parte hartzean oinarritutako antolamendu malgua.* Helburu guzti hauek betetzeko, erakundeen eta pertsonen malgutasuna behar da, izan ere, antolamendu-aldaketak beharrezkoak dira: “*Aldaketak egitea zer zaila den egiaztatu dugu, gure erakundeetan zein bizi-kalitatea hobea eskaini nahi diegun pertsonengan (eta, bereziki, dagoeneko autonomia ezarekin jardutera ohituta daudenengan)*”.

Carrascoren (2021, 88 or.) ustez, erakunde askok pertsona ardatz duen arretaren filosofia partekatu eta bere zereginak gauzatu nahi dituzte, baina hura gauzatzeko

metodo edo estrategiarik erabili gabe. Balio hori benetakoa izan dadin, beharrezkoa da erakundearen konpromisoa, zerbitzuaren orientazioa, profesionalen prestakuntza eta herritarrek zerbitzuaren antolaketan, gertatzen denaren diagnostikoan eta arreta-planean parte hartzea.

Balio hori zentro geriatriko batean nagusitzen denean, egoiliarrek erabakitzen dute nola bizi nahi duten, eta beren bizitza-historiak eta lehentasunek garrantzia hartzen dute: janaria, ordu-tegiak eta logelako altzariak aukera ditzakete. Gizarte-zerbitzuetan egiten dutenean, herritarrek parte hartzen dute diagnostikoan eta lan-planean.

Halaber, Carrascok (2021) azpimarratzen du erakundeetan funtzionamendu mota hori inplementatzeak berekin dakarrela inplikaturako pertsonekin saioak antolatzea, adierazpena eta erabakiak hartzea errazteko. Horretarako, López Marín eta Herrerok (2004) honako prozesu metodologiko hau iradokitzen dute:

- Prestaketa. Pertsonak aukera izango du bere ingurutik (senideak, lagunak, boluntarioak) eta profesionaletatik (gizarte-langilea, medikua, hezitzailea) saioetan parte hartuko dutenak aukeratzeko eta zu nolakoak izatea nahi duen erabakitzeko.
- Ebaluazio ulergarria pertsonarekin. Beharrak, ahulguneak eta gaitasunak aztertuz.
- Plana adostea: helburuak, horiek lortzeko moduak, erantzukizunak eta konpromisoak ezartzea.
- Ezartzea: saioan parte hartzen duen kide bakoitzak hartutako konpromisoak betetzea.
- Prozesuaren, gogobetetzearen eta lortutako aurrerapenen jarraipena eta berrikuspena egitea, prozesuaren ebaluazio gisa.

Izan ere, ohituago gaude zerbitzuaren beharren arabera antolatzera, pertsonen premien arabera baino; denbora luzez, zerbitzu publiko askoren jendaurreko ordutegiak gehiago erantzun diete antolaketa-irizpideei, herritarren irisgarritasuna bermatzeari baino; edo erosoagoa izan da zerbitzuen erabiltzaileei zer egin behar zuten edo zer gertatzen

zitzaien esatea, beren erabateko parte-hartzea onartu baino gehiago, eta horrek esan nahi du profesionalek gidari izateari utzi behar diotela, nolabait, gidari izateko. Paradigma aldaketa bat. Kontua ez da zerbitzuak emate hutsa, eskubide guztiak, aukerak eta herritarren erantzukizuna aitortzea baizik, eta horrek berekin dakar autonomia pertsonalari eta pertsonalizazioari begiratzea (Fernández Muñoz, 2011).

## 4. METODOLOGIA

Lan honetan metodologia kualitatiboa erabiltzeko hautua egin da egokientzat jotzen delako lan honen hipotesi eta helburuei erantzuteko, hots, ikuspegi desberdinak kontutan izanik adinekoentzako bizitegi-baliabide desberdinen inguruko esperientziak eta iritziak bildu eta horietan sakontzeko. Rodriguez et al.ek (1996) hala definitzen dute metodologia kualitatiboa:

Errealitatea bere testuinguru naturalean ikertzen du, gertatzen den bezala, zerbait zentzua atera nahian, edo fenomeno batzuetan inplikaturik dauden pertsonentzat duten esanahiak interpretatzen saiatuz. Ikerketa kualitatiboak material anitzen bilketa eta erabilera inplikatzeko du-  
elkarrizketa, esperientzia pertsonala, bizitza istorioak, behaketak, testu historikoak, irudiak, soinuak- zeinak errutina eta egoera problematikoak eta pertsonen bizitzetako esanahiak deskribatzen dituzten (32. or).

Metodologia kualitatiboaren baitan aplikatutako teknika nagusia elkarrizketa sakonarena izango da. Elkarrizketa, Miren Ariñok (2009, 25.or) definitzen duen zentzuan ulertuko da lan honetan: solasaldi eraikitzaile bat bezala, helburuek gidatutakoa. Nahi denean aztertu ahal izaten dira helburu horiek, erreflexiboa eta, batez ere, parte hartzailea baita prozesu hori. *Eraikitze komunikatiboa* dela ere adierazten du, eta ez diskurtsoen erregistro hutsa, subjektuari hitz egiten diotenak edo subjektuaz hitz egiten dutenak. Hau da, ez dela datuak biltzeko teknika hutsa, baizik eta elkarrizketatzailea eta elkarrizketatuaren artean eraikitzen den esanahien multzoa.

Oro har, elkarrizketek lagin txiki batengana gerturatzeko bidea eman dute. Beraz, errepresentagarritasuna mugatua dela pentsatu daiteke, baina informazioaren sakontasuna oso esanguratsua izan da, elkarrizketatuen esperientziak sakontasunez jasotzeko bidea ematen baitute. Horrela, elkarrizketa sakona, ikaslearen esperientziatik eratorritako informazio gehigarriarekin bateragarriena den teknika gisa ere izendatu daiteke, izan ere:

Elkarrizketaren bidez, bertsioak trukatzeko eta esperientziak alderatzen ditugu, abiapuntuak ulertzen saiatzen gara eta behar-beharrezko ulermena irudikatzen dugu aldaketa bat eraiki eta berriro eraikitzeko (Ariño, 2009, 26.or).

Elkarrizketen edukiari dagokienez, guztira lau izan dira eta bildutako galderak hiru arlotan banatu daitezkeezkeela esan daiteke, izan ere, gizarte langile, auxiliar, egoiliar, edota hauen senideei ondorengo hiru alderdi nagusi hauei buruzko informazioa jasotzeko saiakera egin da:

1. Etxebizitza komunitarioei buruzko iritzia, hauei lotutako estereotipo eta esperientzia pertsonala kontuan hartuz.
2. Beste horrenbeste baina oraingoan *Cohousing* edota apartamentu babestuei buruz.
3. Pertsonan erdiratutako ereduari buruzko ezagupena, esperientzia pertsonaletik eratorritako edozein bizipen kontuan hartuz.

Honela, hipotesi eta helburuei erantzuteko asmoz funtsezkoak diren aspektuak jasotzen dituen gidoia prestatu da (ikusi 1., 2., 3. eta 4. Eranskinak).

Elkarrizketatuak aukeratzeko orduan, adinekoei zuzendutako etxebizitza baliabideekin harremana duten edota bertako errealitateak zuzenki ezagutzen dituzten pertsonak aukeratu dira. Honen helburua baliabide hauen inguruko errealitateak bere osotasunean hautematea litzateke, egon daitezkeen ikuspuntu guztiak ezagutzeko. Hori lortzeko, etxebizitza komunitarioan bizi den egoiliar baten testigantzak jaso dira lehenik, egunerokotasuna bertan igarotzen duen pertsonak baliabidea barrutik nolakoa den azaldu dezan, hau da, lehenengo pertsonan bizitakoatik abiatuta. Halaber, etxebizitza komunitarioan bizi den beste egoiliar baten senidea ere elkarrizketatu da, hasiera batean bere ama bizi izan zen bertan eta gaur, bere amaginarreba dauka. Honek leku berean izan dituen bi esperientzien arteko desberdintasunak identifikatu eta informazio bikoitza jasotzeko aukera ematen du, izan ere, lehenengo esperientzia (amarena) ohiko unitate batean izan zen eta oraingoa berriz, unitate psikogeriatrikoan<sup>11</sup>.

Bestalde, etxebizitza komunitarioetan lan egiten duten profesionalen perspektiba ere txertatu nahi izan da, nolabait baliabidearen hartzaileen esperientzia bertan lan egiten duten profesionalenetik bereizteko. Hirugarren elkarrizketa etxebizitza komunitarioko adinekoei zuzeneko arreta eskaintzen dien auxiliar bati egin zaio, profesional gisa hautematen dituen aspektuak ere lan honetan islatzeko helburuz. Azkenik, etxebizitza komunitarioan diharduen gizarte langile baten testigantza jaso da, ikaslearen gradua hau dela kontuan izanik eta era berean lan hau Gizarte Langintzaren esparrura ahalik eta gehien hurbiltzeko asmoz.

Elkarrizketa guzti hauek ikaslearen praktikagunea izan den eta gaur egun ere bertan lanean jarraitzen duen etxebizitza komunitarioan egin dira, Matia Fundazioko Lamourous egoitzan, hain zuzen. Izan ere, Euskadi mailan pertsonan erdiratutako

---

<sup>11</sup> Aurrerago zehaztuko dira unitate honen berezitasunak.

eredua oinarritzat duen eta egunerokotasunean hau aplikatzeko ahalegina egiten duen gutxienetarikoa da, antzeko beste baliabideekin alderatuz gero. Gainera, lan hau egin ahal izateko beharrezko eskakizuna zen hau, ez baita gauza bera ohiko arreta eredu estandarizatu edo instituzionala jarraitzen duen etxebizitza komunitario bat.

Bestalde, egiturari dagokionez eta berriz ere Ariñok (2009) egiten duen sailkapena oinarritzat hartuta, esan daiteke aukeratutako galderak erdi-egituratuak izan direla, izan ere, galdera gehienak irekiak diren arren, aurretik elkarrizketaren gidoi bat pentsatu eta prestatu da. Bestalde, hauen eduki eta iraupena kontuan hartuz elkarrizketa sakon gisa izendatu ditzakegu, ordu erdi baino gehiagokoak izan baitira denak.

Era berean, aipatzekoa da elkarrizketa guztiak banakakoak izan direla, aurrez aurrekoak, eta denetan esandakoaz gain, erantzunetan elkarrizketatuek igorritako pertzepzio, emozio eta ñabardurak ere adierazteko ahalegina egin da.

Azkenik, esan behar da elkarrizketa guztiak izaera anonimoa gordetzen dutela. Horren baitan, elkarrizketatu bakoitzari bere testigantzak jasotzeko baimena eskatu zaie -euren sinadurarekin onartzen dutena- horretarako prestatu den dokumentuaren bidez (ikus 5., 6., 7. Eta 8. Eranskinak).

### 3.Taula. Elkarrizketatuen profilak.

ELKARRIZKETATUA	PROFILA
<b>1. Elkarrizketatua: Egoiliarra.</b>	Emakumea. 82 urtekoa. 6 urte baino gehiago daramatza Matia Fundazioko Lamourouseko etxebizitza komunitarioan egoiliarra izaten. Autonomia pertsonal handiko profila duen adineko pertsona. Hasieran seigarren solairuan bizi eta urtebete ondoren bosgarrenera igaro zen.
<b>2. Elkarrizketatua: Senidea.</b>	Gizonezkoa. 60 urte ingurukoa. Lamourous etxebizitza komunitarioan amaginarreba duena eta lehen bere ama ere bertan bizi izan zena. Etxebizitza komunitarioko unitate desberdinak gertutik ezagutzen ditu, alde batetik bere amarekin oinarritzko unitatean bizi izandako esperientziagatik, eta bestetik, gaur bere amaginarrebarena, unitate psikogeriatrico batean kokatua dagoena.
<b>3. Elkarrizketatua: Auxiliarra.</b>	Emakumea. 55 urte ingurukoa. 8 urte baino gehiago dihardu auxiliar profesional bezala etxebizitza komunitarioetan lan egiten. Adinekoei zuzendutako Eguneko Zentroen baliabideetan ere ibilia da. Bestalde, Lamourous etxebizitza komunitarioan hirugarren solairuan (unitate psikogeriatricoetan, arreta intentsitate eta segurtasun maila handiagokoak) zein zazpigarren solairuan (pertsonan erdiratutako eredua oinarritzat duen solairua, gela indibidual eta erabateko arreta zein espazio pertsonalizatuekin)

	lanean aritu da, bi hauen artean aurki daitezkeen desberdintasunak identifikatuz.
<b>4. Elkarrizketatua: Gizarte langilea.</b>	Emakumea. 50 urte ingurukoa. 10 urteko esperientzia gizarte langile bezala Matia Fundazioko Lamourousen eta 15 baino gehiago etxebizitza komunitarioen baliabidean. Halaber, jakinduria itzela du pertsonan erdiratutako arreta ereduaren inguruan.

*Iturria:* Norberak egina.

Maila orokorrago batean Ikerketa Ekintza Parte-Hartzailearen markoan kokatu ahalko litzateke ikerketa hau, ikerketa ikaslearen praktikagune lehenik eta ostean lantoki bilakatu den Matia Fundazioko etxebizitza komunitario batean burutu delarik (Lamourous egoitza). Horrenbestez, eguneroko behaketa eta hizketaldietatik ere jaso da informazioa, GRAL hau bere osotasunean osagarritzeko balio izan duena. Etxebizitza komunitario batean praktiketan zein lanean egoteak, ikuspegi globalagoa eskaintzen du eta horregatik, kasu honetan, errepresentagarritasuna zabaldu egiten da.

Bestalde, eta irakurleak honezkero baieztatuko zuen moduan, errebisio bibliografiko sakona ere burutu da marko teorikoaren atalean, batik bat, ohiko etxebizitza komunitarioen aurrean sortu diren eredu berritzaileagoak arakatu nahian: Cohousing esperientziak. Marko metodologiko indartsua jorratu da beraz, hurrengo taulan laburbiltzen den moduan:

**4.Taula.** Hipotesi eta helburuen lanketan erabilitako teknika eta lokalizazioa.

HIPOTESIAK	HELBURUAK	JORRAKETA ATALA	ERABILITAKO TEKNIKA
<b>Adinekoentzako apartamentu babestuetan pertsonan erdiratutako eredu neurri handiagoan aplikatzen dela uste da etxebizitza komunitarioetan baino.</b>	Adinekoentzako etxebizitza komunitario eta apartamentu babestuetako errealitateak ikertu eta alderatzea (oinarrian pertsonan erdiratutako eredu izanda).	Marko teorikoan (3.3 eta 3.4 azpiatalak)	Errebisio bibliografikoa
		Analisian (5.1, 5.2 eta 5.3 azpiatalak)	Elkarrizketa sakonak ( <i>IEPH – behaketa</i> )
<b>Etxebizitza komunitarioetan dauden adineko pertsonetikiko sortzen den gizarte irudia ezkorra dela eta edadismoari loturiko aurreiritziak erreproduzitzen direla uste da.</b>	Adinekoei eta etxebizitza komunitarioetako bizimoduari buruzko aurreiritziak ikertu eta bateragarriak diren frogatzea.	Marko teorikoan (3.2 azpiatala)	Errebisio bibliografikoa
		Analisian (5.1 azpiatala)	Elkarrizketa sakonak ( <i>IEPH – behaketa</i> )

*Iturria:* Norberak egina.

## 5. ANALISIA

Jarraian elkarrizketetatik eratorritako informazioa agertuko da, uneoro lan honen buruketarako ezarri diren hipotesi eta helburuei erantzun nahian. Horretarako atal hau beste hiru azpiataletan banatuta egongo da: alde batetik, elkarrizketatuek ohiko etxebizitza komunitarioen inguruan dituzten iritzi ikuskerak jaso dira lehenik, horien funtzioa eta egokitasuna balioesteko asmoz. Jarraian, esku artean dugun lanaren helburuetariko bat etxebizitza komunitario eta apartamentu babestuen arteko konparaketa egitea izanik, etxebizitza modalitate berrien inguruan (apartamentu babestuak, Cohousing proiektuak, etab.) profesional, erabiltzaile zein horien senideek dituzten iritziak aztertzea pasako gara. Azken atalean berriz, pertsonan erdiratutako ereduak era guztietako baliabideetan duen presentziaren inguruko azterketa burutuko da, eredu hori benetan bermatzen den edo hobeto bermatu dezakeen baliabiderik gailentzen ote den ikusteko asmoz.

### 5.1. Ohiko etxebizitza komunitarioak: berrikuntzak behar dituzte, baina gutxietsiak ere badira

Elkarrizketatuei ohiko etxebizitza komunitarioen inguruan egindako galderetatik jaso dugun informazioaren arabera, ikusten da gizartean oraindik hauei buruzko aurreiritzi ezkor eta estereotipo ugari daudela. Adinekoen egoitza batean pentsatzerakoan gainera, mahaigaineratzen diren aurreiritziak mota askotarikoak izaten dira. Egunerokotasunean aurki ditzakegu, komunikabideen eragina ere sekulakoa izanik, etxebizitza komunitarioei buruzko gizarte ikuskera ezkorra indartzen baitute, adierazten dituzten berri eta datu asaldagarriekin. Honez gain, etxebizitza komunitarioak zerbitzu ilun eta ezagutezin gisa ikusten dira, iruzur zein mesfidantza sentimendua sorrarazten dute jendearengan, baztertze jarrera bat eragiteraino.

Antes de venir yo también tenía prejuicios sobre las residencias (...). También cuando escuchas los alarmantes datos que la televisión muestra o las malas experiencias de algunas personas cercanas. Y es que hay algunas residencias en las que no quieren que se muestre lo que pasa dentro de las cuatro paredes... (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Azpimarratzekoa da halaber, *edadismoak* etxebizitza komunitarioen inguruan gizartean sortzen duen irudi ezkorra. Izan ere, gizartearen beharretara zuzendutako gizarte



zerbitzu bat baino, negozio bat bezala ikusten da. Hau da, pertsonen behar eta egoera zaurigarriez baliatzen den salerosketa bezala, zerbitzuaren kalitatearen gainetik bestelako interes ekonomikoak lehenesten dituen.

La residencia es una empresa de servicio hacia las personas. Lo que pasa es que ese servicio puede ser bueno o puede no serlo, ya que puede haber servicios que cuidan la calidad y hay otros que buscan el beneficio por encima de eso (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Halaber, etxebizitza komunitarioei buruz dagoen irudiak, marko teorikoan askotan aipatu diren aurreiritziak sendotzen ditu, esaterako, familia eta estatu karga gisa irudikatzen dituen (Martin, 2020). Hau da, behin adineko pertsonaren zaintza lanak intentsiboak bilakatu eta autonomia galtzen duenean, adineko pertsona hori familia zein senideentzat “traba” edo enbarazu izatera igarotzen da.

Bestalde, honek agerian uzten du gizartean etxebizitza komunitarioak edadismoaren beste estereotipo batekin lotzen direla, adineko pertsonen balio faltarekin, hain zuzen. Izan ere uste da behin gure adinak pasa ahala balio pertsonala urritzen joaten dela, autonomia galdu eta gure “balio” hori guztiz desagertzeraino. Momentu horretan, pertsona hori etxebizitza komunitariora eramatea erabakitzen da, familiaren ezinegon hori arintzeko asmoz eta adinekoaren nahiak errespetatu gabe.

Nos estamos olvidando de ellos porque los consideramos un “estorbo” (...). Muchas veces las familias se ven desbordadas cuando la persona empieza a necesitar una serie de cuidados que conllevan tiempo y dedicación. Nos suelen preguntar “¿Y ahora qué hago con mi madre/padre? No lo puedo tener en casa ni puedo atenderle adecuadamente porque tengo mi vida y mi trabajo “. Nos damos cuenta de que en el momento que uno se vale por si mismo todo va bien, pero cuando esto cambia es cuando la persona se vuelve un estorbo (3. Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Edadismoak era berean, etxebizitza komunitarioen funtzionamendu eta kalitatean eragiten du. Izan ere, adineko pertsonak jasaten duten bazterketa eta garrantzia faltak, haiei zuzendutako zerbitzuen urritasuna eragin eta baldintza xumeak izatera eramaten ditu. Ez da zerbitzu hauen hobekuntzaren alde egiten ez horretarako dirurik bideratzen. Adineko pertsonen bizitzako azken urteak direlaren aitzakipean, ez zaie behar besteko garrantzia eskaintzen, lehentasunik gabekoak balira bezala.

Ni siquiera hay suficientes recursos para los mayores. Es lo mismo que ha pasado con el Covid-19. La población está envejecida y los que mandan saben la realidad de esto. Pero no te creas que lo que ahorran en este tipo de recursos lo invierten en cosas sociales, sino que se lo quedan ellos (...). Como son viejos los aparto y así me ahorro un montón: un montón de esfuerzo, un montón de recursos, un montón de dinero (3. Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Aquí ya entraríamos en política pero me apetece decirlo. Gastamos mucho en esto y en aquello, pero hay muchas cosas mucho mejores en donde gastar el dinero y una de ellas debe ser está, porque va a ser nuestro futuro. Vuelvo a remarcar, se puede financiar de una manera buena, pero no interesa (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Adinekoei zuzendutako errekurtsoei lehentasun txikiegia emate honek esaterako, etxebizitza komunitarioetan ematen den arreta maila eta kalitatea asko mugatzea dakar. Adinekoak zenbaki bat balira bezalako tratua jasotzen dute, denei berdina eta homogeneoa, pertsona guztiek behar berak edukiko balituzte bezala, edadismoaren beste aurreiritzietako bat, alegia. Hala ere, ezaugarri hauek biltzen dituen tratua eskaintzearen arrazoi nagusia baliabide falta da. Izan ere, auxiliarrek oso ratio txikiak izaten dituzte eta horregatik oso zaila egiten zaie egoiliar bakoitzaren beharrak estali ahal izatea. Ondorioz, auxiliarrei oso zaila egiten zaie zeregin teknikoek gain (higiene, oheratze, bazkari..) egoiliarrekin denbora pasatzeko bestelako momentuak topatzea. Horregatik, langileen helburua hurbileko arreta hori eskaintzea den arren, gehienetan ezinezkoa egiten zaie hau lortzea hain zuzen egunero dituzten eginbehar guztiengatik.

Por otro lado, está la falta de tiempo. Muchas veces no nos tomamos el tiempo suficiente para conocer o acercarnos a conocerlos, también por la carga de trabajos técnicos que debemos cumplir como hacer las camas, cuidarlos, darles de comer... (3. Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Bestalde, egoera honi erantzun bat ematea Foru Aldundiaren erantzukizuna dela uste da, izan ere, berak adierazten ditu ratio kopuru eta etxebizitza komunitarioetako langileen lan baldintzak, zuzenki egoiliarren bizitza kalitate eta ongizatean eragina dutenak. Ezartzen dituen ratio eta baldintza hauek behar gisa kontsideratzen ditu soilik lehen mailako beharrak, gehienak fisikoak, bestelako alderdi emozional edota psikikoei erreparatu gabe eta ondorioz, pertsonen gertuko tratua jasotzeko eskubide hori ukatuz.

El problema es que a día de hoy las administraciones, el cálculo de las aportaciones que hace diputación para la plaza residencial o para marcar los ratios del personal se marcan en función de unas necesidades muy básicas como son por ejemplo higiene, tiempos de comida etc. No contempla ni tiene en cuenta otro tipo de interacción con la persona que en el modelo centrado en la persona es básico: tiempos de escucha, de interacción más social... (4. Elkarrizketatua: Gizarte langilea)

Bestalde, elkarrizketatuei etorkizunean etxebizitza komunitarioa aukeratuko luketen galdetzerakoan argi geratzen da ez dela inondik inora haien asmoa. Gizartearen isla da hau, izan ere, pertsona bat etxebizitza komunitarioan sartzea azken aukera izaten da normalean, beste ezer egin ezin dezakezunean hartutako erabakia, alegia, behar hutsagatik. Mendekotasun maila handia duten pertsonak izaten dira gehienbat erabaki hau hartu behar izaten dutenak, jada euren ohiko etxebizitzetan bizitzen jarraitzea bideragarria ez delako. Orokorrean azken erabakia hau zaila izan ohi da eta “abandonu” zein baztertze, bakardade sentimenduekin harremantzen dira, ezer gehiago egin ezin denean hartutakoak baitira.

Aun así, es verdad que yo no traería a mi suegra a una residencia si supiera que su cabeza aun distingue las cosas o que todavía es capaz de valerse por sí misma (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Gainera, erantzun guztien arabera, beste aukera bat egongo balitz, etxebizitza komunitarioetara sartzeko aukera hori baztertuko lukete, esaterako, ohiko etxebizitzan etxeko laguntza jasota bizimodu eramangarria izan ahalko balute. Izan ere, eman dituzten erantzunen arabera ikus daiteke kasu guztietan, hasieran bada ere, ez zitzaiera erabaki hori hartzea gustatu eta hein batean, gogoz-kontrako erabakia izan zela, euren behar fisiko edo kognitiboei garrantzia emanez, baina beraien bizitza proiektu edo nahiak baztertuz.

También te digo que yo cuando ingresé aquí lloré mucho (...). Cuando vi esta residencia le dije a mi sobrino -porque es quien me ayudaba a pagar- junto a la trabajadora social del centro que me ayudaran a hacer los trámites con diputación, para que pudiera ingresar lo antes posible. Lo que pasa es que a mí me angustiaba que mis sobrinos casados, con sus hijos, tuvieran que cuidarme o darme dinero a mí... aunque me decían

que no me preocupara, que estuviera tranquila, que ellos me consideran como su segunda madre (1. Elkarrizketatua: Egoiliarra).

Pertsona bat etxebizitza komunitarioan bizitzen hasterakoan, kontuan hartu behar dira profil bakoitzaren aspektu eta behar oro. Hau errespetatzea ordea zaila izaten da sarri, batez ere unitate psikogeriatriakoan bizi edota narriadura kognitibo handia duten pertsonen kasuan, izan ere, euren hasierako egokitze prozesuak izaten dira zailenak. Ez dute errealitatean gertatzen ari dena ulertzen eta horrek egoera berriarekiko onarpen eza suposatzen du. Sufrimendu asko sortzen duen erabakiak izaten dira hauek, bai familia bai egoiliarrarentzat eta etxebizitza komunitarioetan lan egiten duten auxiliarrek arazoak izaten dituzte zerbitzua pertsona hauei egokitu nahi izaten dutenean.

Recuerdo otro caso de una mujer con bastante deterioro cognitivo en tercera en el que no sabíamos qué hacer. Sus primeras semanas en la fase de adaptación fueron muy duras. Nos hacía preguntas como ¿Por qué estoy aquí? o ¿Por qué estoy encerrada? Ella lo vivía como un castigo, como una cárcel y no sabíamos qué responder. La familia también sufrió mucho... (3. Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Bestalde, gizartean uste da etxebizitza komunitarioen funtzioa zaintza eta arreta maila handienak dituzten pertsonen egoerari erantzuna ematea dela, baina etsipen kutsua gordetzen du honek atzetik, pertsona batek bere buruarekiko kontrola galduko balu bezala, bere ingurukoek bere partez erabakiak hartzera eman edo utziko bailitzan. Adineko pertsonak bere mugak onartu baino, gertukoei berarengan eragina duten erabakiak hartzeko baimen hori ematen duela uste da etxebizitza komunitarioetan sartzerakoan. Hau da, pertsona horren autonomia errespetatu ordez, are eta mendekoagoa bihurtzen dela, egoitzan bertan eguneroko lan guztiak gauzatzen baitizkiote, hauek aurrera eramateko gai ez dela kontsideratuz.

Aun así, es verdad que yo no traería a mi suegra a una residencia si supiera que su cabeza aun distingue las cosas o que todavía es capaz de valerse por sí misma (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Zerbitzu honen inguruan gizarteak duen irudi ezkorrak jarduera eza gabeko adinekoak irudikatzen ditu, bizitza pasibo bat daramatenak, eguneko orduak zerbait gertatuko denaren esperoan igarotzen dituztenak etab. Bertako egoiliarrei galdetzerakoan ordea, errealitatea bestelakoa dela konturatzen gara, izan ere, etxebizitza komunitario batean

profil eta egoera desberdina dituzten pertsonak bizi dira, batzuk besteek baino arreta maila handiagoa behar dutenak. Horrek ez du esan nahi ordea pertsona hauek egoitzan bertan bizitza aktibo bat mantendu ezin dutenik, ezta beren autonomia galtzen dutenik etxebizitza komunitarioan sartzerakoan. Bakoitzak nahi duena egiteko aukera du. Egiten diren jarduerak indibidualak zein taldekoak izan daitezke, pertsonaren interes eta gustuen arabera baitira. Beraz, pertsonak euren denbora nahi bezala antolatzen dute gustukoak dituzten ekintzetan parte hartuz.

Por las mañanas me dedico a preparar el desayuno de mi comedor, de los residentes que van llegando, ayudando en lo que puedo. La residencia es mi retiro, en la habitación tengo todo lo que necesito, suelo estar haciendo mis ejercicios porque me suelen doler las rodillas y otras veces me pongo la televisión. También tengo grabadora y cuando se van a echar una película protagonizada con actores de mi tiempo la pongo para grabar lo que me interesa y poder verlo cuando a mí más me apetezca, que normalmente suele ser por las tardes, después de la comida. Otras veces también leo algunas páginas de lo que sea aunque tenga problemas de vista, me esfuerzo e intento leer aunque sea un par de páginas. Hay veces también que viene una fisio a planta y a veces participo en las actividades junto con las demás compañeras de planta, nos viene muy bien para movernos un poco (1. Elkarrizketatua: Egoiliarra).

Kognitiboki egoera zailagoa duten adineko pertsonen kasuan, euren familia eta inguruko pertsonetatik jasotako informazioa bildu ohi da bere interesei ahalik eta gehien hurbiltzen den eginkizunak egitera bideratzeko. Gizarte langileak familia zein egoiliarrekin edukitako elkarrizketan kontuan hartzen da aspektu hori, aurrerago esku-hartzearen plan indibidualizatua ere egin ahal izateko. Horrela, halaber, profil hauen bizitza proiektua errespetatu eta beren beharrei erantzutea bilatzen da, haientzat esanguratsuak diren jardueretan integratu eta bizitza aktiboa mantentzeko saiakera eginez.

En el caso de las personas que a día de hoy por su estado no pueden comunicar este tipo de cuestiones, lo que intentamos es recopilar información sobre ello mediante la familia o personas de referencia para crear esos espacios que sean confortables. Al ser una residencia abierta y sin horarios de visita, por eso ofrece posibilidad a que las familias puedan estar y acompañar en el día a día de las personas (4. Elkarrizketatua: Gizarte langilea).

Lamorous egoitzaren kasuan, ahalegin handiak egiten dira egunero bertan bizi diren pertsonen parte hartzea sustatzeko, euren profila dena delakoa izanik. Hirugarren solairuan bizi direnek ere (profil psikogeriatriakoa dutenak) euren ekintzak aurrera eramaten dituzte, baita zazpigarren (pertsonean erdiratutako eredu oinarritzat duen solairua) eta gainontzekoetako adinekoek ere. Honek, etxebizitza komunitarioei buruz dugun estereotipo horri egiten dio talka, izan ere askotan uste da baldintza fisiko zein kognitibo txarreko pertsonak baztertuak egoten ohi direla, jaramonik egiten ez zaiela edota eguneroko eginkizunetan euren parte hartzea balio gabekoa dela.

Tanto en la séptima como en la tercera planta impulsamos la participación de todos los residentes, unos participan más o menos, pero todos están involucrados en las actividades aunque sea de manera observacional. Claro que todo depende de la situación de ese mismo día, a veces vienen las familias a visitarlos, otras veces nos ponemos a dibujar, algunos a recoger la mesa, doblar baberos... Cada uno con lo que pueda (3.Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Horregatik, esan daiteke pertsonan erdiratutako eredu jarraitzen duen etxebizitza komunitario orok bertako egoiliarren autonomia sustatu dezakeela hori lortzeko ahaleginak eginez gero. Autonomia horren barruan egoiliarren parte hartzeaz gain, euren mugikortasun gaitasunaren hobetze eta mantentzea ere sartu daiteke, izan ere, geroz eta mugikortasun hobea izan, orduan eta autonomoagoa izan zaitezke hainbat zeregin bakarrik burutzeko orduan, esaterako, ohetik altxatu edota dutxatu egin behar zarenean. Etxebizitza komunitarioek autonomia pertsonalaren begirada hau kontuan hartzen dutela argi geratzen da beraz, egunero pertsona hauek bizitza aktibo bat izan dezaten alde apustu egiten baita, bertako egoiliarrek eguneroko ibilaldiak zein bestelako ariketa fisikoak gauzatuz, kognitiboki ondo dauden pertsonekin ez ezik, profil psikogeriatriakoa duten pertsonekin ere.

Un ejemplo claro es que se promueve la autonomía personal. En el caso de mi suegra, dentro de la enorme dependencia que ella tiene, todavía se mueve, tiene buena movilidad y camina sin ayuda de nadie. Para los auxiliares sería mucho más fácil y cómodo tenerla sentada todo el día en el sofá sin que molestara, aún más sabiendo que se trata de un perfil psicogeriatrico, y sin embargo, todos los días la animan a pasear y le dejan que deambule por los pasillos a todas horas. Solo se sienta cuando se siente cansada, ella decide su hora de descanso (2. Elkarrizketatua: Senidea).

Bestalde, etxebizitza komunitarioetan bizi diren pertsonen kasuan intimitateari dagokionez, esan daiteke zaila izaten dela bakardadean egoteko momentuak izatea. Familia edo senide baten bisita jasotzen denean esaterako, logela indibidual bat eduki ezean, egongelan egoteko beharrezana ikusten da, edo kalera irteteko paseo bat emateko. Egoiliarrek ere euren espazioak sortzeko zailtasunak izaten dituzte, batez ere autonomia maila txikia dutenentzat, izan ere, behar duten laguntzagatik eguneko zeregin guztiak auxiliarrekin partekatuak dira: komunera joatea, dutxak, bazkariak...

Normalean, autonomoagoak diren pertsonen lehenengo aukera edo nahia hori izaten da, etxean bezala egotearen sentimendu hori lortzeko asmoz, komun propioa nahi izanagatik edota besterik gabe bakoitzak bere espazioa behar duela sentitzen duelako. Ohikoena, gelakidearekin harreman ona edukitzea da, baina horrek ez du kentzen gela partekatzeak momentu intimoak edukitzeko aukera nahiko zailtzen duela. Horregatik, harremantzearen beharra eta intimitatearen artean aukeraketa egin behar izaten denean, intimitatea edukitzearen nahiak irabazi egiten du. Erabaki honek mahaigaineratzen du horretaz etxebizitza komunitarioetan kostatzen dela intimitaterako eskubide hau errespetatzea, oraindik ehuneko ehunetan bermatzea lortu ez den zerbait baita.

Por eso bajé a la quinta planta. Yo antes estaba muy contenta en la sexta planta pero compartía habitación con otra señora. Cuando la trabajadora social del centro me llamó para comunicarme que en la quinta había una habitación individual disponible, no me lo pensé dos veces. He compartido habitación con más de una compañera pero lo que realmente llevaba mal era compartir el baño, lo he pasado muy mal porque había personas que hacían porquerías ahí. Entonces cuando pensé “¿Un baño para mí sola, que no puede entrar nadie?” realmente estoy encantada. Es verdad que al bajar sentí el separarme de las auxiliares y compañeras de allí, pero por lo demás estoy muy contenta (1. Elkarrizketatua: Egoiliarra).

Askotan uste izaten da ordea pertsona guztiek gela indibidualak nahi izaten dituztela. Hala ere, hori ez da beti horrela izaten. Hau da, erabaki hau pertsonaren arabera izaten da. Bestelako egoera kognitibo edo psikikoak dituztenen kasu batzuetan aldiz, badaude kontrako nahi izaten duten pertsonak. Izan ere, alboan pertsona bat edukitzeak segurtasuna eskaintzen die, konpainia sentimendua, eta nahiz eta alboko gelakidearekin edukitako harreman hori estua ez izan, nahiago dute norbaitekin gela banatu euren burua bakarrik ikusi baino.

En las residencias no todo el mundo quiere una habitación individual, esto también depende de la situación de cada uno. Yo he conocido personas que no se sienten a gusto cuando se ven solas en una habitación y aunque no interactúan mucho con su compañero/a de habitación, prefieren sentir que hay alguien cerca, por seguridad. También tienen que existir las habitaciones compartidas por ejemplo para los matrimonios etc. (3. Elkarrizketatua: Auxiliarra).

Hala eta guztiz ere, intimitatearen auzia zaintzea apur bat zaila izaten den arren, horrek ez du esan nahi egoiliarak etxean bezala sentitu ezin direnik. Izan ere, helburu honek, intimitateaz gain bestelako aspektu eta faktoreak barne biltzen ditu halaber, esaterako, instalazioen egitura, etxebizitza komunitarioen ingurune edota dekorazioa, auxiliarren partetik jasotako gertuko tratua etab. Beraz, hasieran etxebizitza komunitariora sartzerako egokitzapen prozesua zaila izan daitekeen arren, etxean bezala egoteko sentimendua lortu daiteke.

Ahora ya sí siento que esta es mi casaa. Al cabo del tiempo sí, pero he tenido que doblregar mucho mis sentimientos, he tenido que doblarlos y redoblarlos muchas veces hasta conseguirlo. Eso sí, ahora a mí me dicen de cambiar de residencia y ¡por nada del mundo! (1. Elkarrizketatua: Egoiliarra).

